

# Euskarazko sermoi-ondarea Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboan

(Basque sermon collections in the Biscay Regional Archive)

**Uribeetxebarria Maiztegi, Tomas**

Eusko Ikaskuntza. María Díaz de Haro, 11, 48013 Bilbao

BIBLID [0212-7016 (2007), 52: 2; 415-446]

---

*Lan honek Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo Historikoan dagoen euskarazko eskuizkribuen Ondarearen berri ematen du, eskuizkribuen eta haien edukien deskripapen orokorra eskeiniz. Ondarek laurehun dokumentutik gora ditu, denak oratoria sakratuko testuak dira: sermoi, platika, panegiriko, etab., bizkaieraz eta gipuzkeraz idatziak batez ere. Gehienbat XVIII. eta XIX. mendeetakoak dira, eta zenbait XX.ekoak. Bide batez, Ondarea euskal literaturaren eta euskararen historia-ren testuinguruan kokatu da.*

*Giltza-hitzak: Euskara. Literatura. Eskuizkribuak. Sermoigintza. Diakronia. Euskalkiak.*

*Este trabajo da noticia del Fondo documental eun euskera del Archivo Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia. Se ofrece una descripción general del conjunto de los manuscritos y de sus contenidos. El Fondo comprende varios cientos de documentos que pertenecen al género de la oratoria sagrada: sermones, pláticas, panegíricos, etc., escritos fundamentalmente en los dialectos vizcaíno y guipuzcoano. La mayoría pertenecen a los siglos XVIII y XIX, y algunos al XX. Al tiempo, se sitúa el fondo en el contexto histórico de la literatura e historia de la lengua vasca.*

*Palabras clave: Euskera. Literatura. Manuscritos. Sermonario. Diacronía. Dialectos del euskera.*

*Ce travail rend compte du Fonds documentaire en euskara des Archives Historiques de la Députation du Bizkaia. Il offre une description générale de l'ensemble des manuscrits et de leurs contenus. Le Fonds comporte plusieurs centaines de documents, appartenant au genre de l'oratoire sacrée : sermons, conversations, panégyriques, etc., rédigés principalement dans les dialectes « vizcaíno » et « guipuzcoano ». La plupart datant du XVIIIe et XIXe siècle et certains du XXe. En même temps, le fonds se situe dans le contexte historique de la littérature et de l'histoire de la langue basque.*

*Mots clés : Euskara. Littérature. Manuscrits. Prédication. Diachronie. Dialectes de l'euskara.*

## 1. ATARIKOA

Badira Euskal Herriko komentu eta erakundeetako artxiboetan erlijio-gaie-tako hamaika eskuizkribu, gehienak aspalditik gutxi-asko ezagunak direnak, eta argitaratuak ere izan dira hainbeste. Baina ez da falta izaten liburutegien, liburu zaharren denden eta gutxien uste den bazterren miatzaile zorrotzik eta, zorionez, beti agertzen dira dokumentu berriak. Oraingoan Bizkaiko Foru Aldundiak daukan euskarazko eskuizkribu sail baten berri eman nahi da. Ondarea aski ugaria da, sermoiz eta kristau-dotrinaren azalpenez osatua batik bat. Eskuizkribuak, denak ez baina ia denak hemezortzigarren mendea-ren azken aldikoak eta hemeretzigarrenekoak dira, eta, datu horiek —edukia eta garaia, alegia— jakinez gero, ez zaio, agian, inor askori deigarri ez bereziki interesgarri gertatuko dokumentu horien presentzia, esan bezala ezaugarri berdinetako hainbesteri gaineratzen baitzaizkie. Hori onarturik ere, ongi zeto-keela irudituz zitzaigun hauen ezagutza zabaltzea eta bidenabar deskribapen bat, oso zehatza ez izanda ere, eskaintzea, beti ere lagungarri gerta zitekeel-ako beraietara hurbildu nahi izan lezakeen nornahirentzat.

Literatur mota hau ikuspuntu ezberdinetatik begira daitekeenik ere ez da erraz ukatzen, eta ez litzateke bakarra izango literaturtasuna bera ere uka lie-zaiokeen edonor. Baina ez dago hainbesteko ur handitan sartu beharrik sermolaritzari eta oro har oratoria sakratuari erretorikaren aprobe-txamendurik artatsuen onartu ahal izateko. Eta orobat hizkuntzaren erabile-ra zaindua eta aberatsa eta horretan datzan edertasunaren atsegina ere. Behar bada, kreatibitateak egiten dio huts oratoriari oro har, eta agian areago sakratuari literatur munduan eskubide osoz sartu ahal izateko. Izan ere, ez baita literatura erlijiosoaren helburua mundu berrien sortzea, Jesusek inau-guraturiko mundu berriaren berri-ona zabaltzea baizik. Helburua didaktikoa du batik bat, eta mintzairaren funtzioa, deitzailea eta eragilea. Ez bata eta ez bestea ez dira hain aproposak kreatibitatearen garapenerako, sormenak gaindiezineko hesirik ez badu ere. Bai, ordea, erretorikako errekurtsoak balia-razi eta erabiltzeko, dituen helburuak erdietsi eta hizkuntzaren funtzio eragi-lea ahalik eta hobekien ustiatu nahi baditu eta hedatu nahi duen Berri Ona, beti bera izanik ere, beti berri azaldu nahi badu.

Oratoriak badu beste alderdi bat edozein analisisan ere begien aurretik gal ez daitekeena. Idatzizkoa izanik ere ezinbestez gure eskutara iritsi dena, edozein motatako oratoria, sermolaritza barne, ez da berez idatziz ematekoa, ahoz ematekoa baizik, aho-mintzairaren ezaugarri guziekin: doinua, mimika, hizkeraren eta irudien eta beste hizkuntza-baliabideen bizitasuna eta aurrez aurre aurkitzen den hartzaileari egokitu beharra. Aldez aurretik idatzi egiten da, bat-batekoa ez bada, noski. Sermoiak ere idatzi egiten dira, eta badira besteen lagungarri argitaratu ere egin dituztenak, baina horrek ezer gutxi aldatzen du, idaztearen helburua beti bera baita eta, nahiz norberaren probe-txurako nahiz inoren laguntzarako izan, egileek kontutan hartu behar dituzte idaztean aurrez aurreko hitzaldien oinarrizko baldintza horiek. Nolanahi dela ere, ahoz eta zuzenean ematea ez da eragozpen oratoria literatura izan dadin, eta, beste edozein genero eta artetan bezala, mailak erakutsiko du zein kontsiderazio mereziko duen kasu bakoitzean.

Azkenik eta oratoriaren ezaugarriekin loturik, ezin izango genuke aipatu gabe utzi euskararen kasuan zein eragin handia izan duten sermolaritzak eta apaiz-erlijiosoen ahaleginek euskararen iraupenean eta indartzean. Izan ere, dotrinaren azalpenak, sermoiak, deboziozko liburuak, erlijio-gaiak oro har, dira euskal literaturaren historiaren habe nagusia. Herri-hizkuntzak gizarteko esparru ezberdinetan agertzen eta indartzen hasi zirenean, euskara ere, mantsoago eta mugatuago izan bazen ere, pertsona kultuen eskutik idatziz azaltzen hasi zen. Apaiz eta erlijiosoen eskutik batez ere, eta horiek elizagaiak zerabiltzaten gehienbat. Behar bada, hemen ere objekta daiteke ez zutela euskara helburu, Kristoren doktrina azaltzea baizik. Bai, asmoa eta helburua kristauen dotrinatzea zen, beste edozein helburu izan zezakeen bezala. Hizkuntzak komunikazio-tresna dira, hori dute egiteko eta helburu, eta horretarako ez badira, haienak egin du. Hizkuntzaren erabileraren helburua ez da sekula hizkuntza bera, baina erabilerak, gizarte-harremanetan ezinbesteko tresna bihurtuz, haren iraupena eta bizkortasuna bermatzen ditu.

Kreatibitate handiagoko literatur lan gehixeago balira, ala zientzia eta humanitateetakoak ugariagoak, aberatsagoa eta estimagarriago izango litzatekeela euskararen literaturaren historia, batetik, eta baliagarriagoa ere bai, bestetik? Agian, bai, baina ez dago zertan dolutu gauzak joan diren bezala joan direlako euskara idatziaren bilakabidean. Alderdi askotatik begira daiteke errealitate hori, eta azterketa sakonagorik ere mereziko luke ziurrenik, baina gauza bat ziurtzat jo daiteke, zorte handia izan duela euskarak hainbeste apaiz eta erlijioso izatearekin bere gizartean azken bost mendeetan, eta probetxu neurtezina atera diola ere bai euskarak sermolaritzari, doktrinaren azalpenei, deboziozko liburuei, eta, hitz batez, eliz jendeari. Ez dago literatur mota asko herriaren eskurago eta herriaren hizkeratik hurbilago, eta gutxi herriari zuzentzeko ahoz hain erabilia izan denik. Aberasten gutxi ala asko lagundu ote dion eztabaidagarri izango da, baina euskal herriaren ahotan bizi-bizirik irauten zenbateraino lagundu dion ez da sekula behar heinean neurtuko.

## 2. EUSKAL SERMOLARITZA XVIII.-XIX. MENDEETAN

Euskaraz argitaratutako lehenengo liburua bera ez litzateke adibide txarrarena euskal literaturaren bikoiztasuna aditzera emateko. Ez da eliz liburutzat hartzen, baina liburuaren zatirik handiena, eta aurrenekoa, Kristau dotrinaren azalpenak hartzen du, eta hona lehen hitzak *Doctrina christiana* izenburupean: *Munduyan den gion oroc behar luque pensatu / langoycoac nola duyen batbedera formatu / Bere irudi propiara gure arima creatu / Memoriaz vorondez endelguyaz goarnitu*<sup>1</sup>. Eta gero irudi biziak eta adibide ulergarriak: *Eceyn iaunek eztu nahi muthil gaixtoa eduqui / Ez pagatu soldataric cerbiçatu gaberíc; Oguiric eztacussat vilcen haci ereyn gaberíc*. Hala ere, esango litzateke alderdi profanoa baizik ez zaiola onartzen literariotzat.

---

1. ETXEPARE, Bernard. *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), Bilbao, 1978.

Baina, bataren gatzaz eta bestearen graziaz aparte, bietan esku eta gaitasun berak auteman daitezke.

Kristauen formazioaren kezka, nahiz katolikoaren artean nahiz protestanteen artean, asko gehitu zen Erreformaren eta Kontrarreformaren garaian eta erromatarrentzat agindu zorrotz bihurtu zen Trentoko Kontzilioan. Aurretik, gozainei zegokien batik bat sermolaritza, baina Kontzilioaren ondoren apaizei ere gehiago zabaldu zitzairen, eta areago doktrinaren azalpen eta erakusketa, aurretik ere egiten zutena, bestalde.

Horretarako, baina ez horregatik soilik, herri-hizkuntzaren erabilera ezinbesteko egin zen Elizan, Eliza katolikoan esan nahi dut, besteetan afera hori erlijio-gatazkaren sorreran aurkitzen baitzen. Giro horretan koka daitezke, beraz, Sancho de Elso-ren XVI. mendeko dotrina galdua, titulutik antzeman daitekeenez: *Doctrina christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados, en castellano y vascuence*. Berdin mende bereko Leizarraga protestantearen lanak. Eta XVII. ean Betolaza, Capanaga, Axular, Ziburuko Etxeberri, Gasteluzar, Tartas, eta beste zenbait, denak apaizak eta gehienak iparraldekoak. Argitaratu zituzten liburuak gehienbat doktrinak eta doktrinaren azalpenak eta otoitzerako liburuak izan ziren, baina horiek irekiko zieten atea sermoi-liburuei.

Euskal literaturaren historian, XVIII. bigarren erdialdean eta XIX. mendean, literatur mota honen nagusitza erabatekoa da. Dena den, ez dago euskal sermolaritza inguruko lurraldeetako sermolaritza girotik bereizterik, mende horietan hedatu baitzen sermoigintza eliza guzietan eta, neurri batean, apaiz guzien eginkizun bezala ere. Horregatik argitaratu ziren hainbeste liburu urte osoko igande eta jaiegunetarako sermoiekin, eta doktrinaren azalpenarekin ere bai, egin behar horietarako apaizen lagungarri<sup>2</sup>.

XVIII. mendean artean latina zen ofizialki hizkuntza nagusia unibertsitateetan eta unibertsitateetako idazleen argitalpenetan, baina eguneroko jardun arruntean herri hizkuntzen nagusitasuna erabatekoa zen giro horretan ere, eta eztabaida gori gorria zegoen zientzia gaien argitalpenetan eta Unibertsitateko ekintza publiko garrantzitsuetan erabili behar zen hizkuntzaz. Istiluak istilu, ez zuten zailtasunik izango eztabaida horretan zein gailenduko zen jakiteko. Baina, latinaren aferaz aparte, kezka handia zen mende horretan Europa osoan herri hizkuntzen erabilera onaz, eta Espainian ere, hamar-kada batzuk geroxeago, agian, indar handiarekin joan zen garatuz ardura bera. Mendean zehar argitaratu ziren irakaskuntzarako gramatikak, hiztegiak eta hizkuntzaren erabilera eder eta jatorraren aldeko lanak dira horren leku-korik argienak. Bat aipatu nahi nuke hemen, gure herriko semea baitzen eta hau idazten ari naizen egunotan ospatzen baita bere jaiotzaren 300. urteu-

---

2. Garai hartan liburu asko argitaratu ziren sermoigintzan laguntzeko, eta eskuizkribu haue-  
tan garbi esaten da zenbait aldiz Eguileta eta Mazo-ren lanak direla testuen iturriak. Mendiburuk  
ere Croisset-en liburua euskaratu zuen XVIIIko lehen erdian. XIX. erdian, 1849, jasotzen da  
hemen bertan aipamen esanguratsu hau: "De la Biblioteca completa de Oratoria Sagrada por D.  
Juan Troncoso ó coleccion selecta. 1849", 8. fitxeroan, hamazazpigarren eskuizkribuan.

rrena: Esteban de Terreros y Pando, Bizkaiko Turtzioz herrikoa<sup>3</sup>. Eta azpimarra daiteke, argitaratu ziren liburuen artean oratoriari buruzkoak izan zirela aurrenekoetakoak<sup>4</sup>.

Euskara ere ez zen atzeratu herri hizkuntzen iraultza horri dagokionez, emaitzak bakanak izan baziren ere. Aitzitik, goiztiar eman ziren lehenengo fruituak Larramendiren eskutik. Aurrenekoa, 1728an, euskararen antzinatasun eta edertasunak azalduz eta aldarrikatuz; 1729an euskararen gramatika, mundu guzian aho bete ur hotz utziz; eta hiztegia, 1745ean<sup>5</sup>. Larramendi entzute handiko pertsona zen Espainia guzian, eta lan hauekin areagoko oihartzuna eta itzala lortu zituen euskal jende kultuen eta erlijioso eta apaizen artean. Hari esker sustatu eta hedatu zen apaiz eta erlijiosoen artean elizetan erabiltzen zen euskara zabarraren kezka. Esan bezala, garaiko giroan pilpilean zegoen arazo hori, baina gure artean Larramendi izan zen aitzindaria.

Sermolaritza eginkizun jaso zen, prestakuntza eta gaitasun bereziak eskatzen zituena, eta baziren, batez ere erlijiosoen artean, horretara beren beregi zuzentzen zirenak. Hamaika aipatzen dira N. Etxebarriaren Katalogoan, Solagurenen bizitza laburpenetan<sup>6</sup>. Baina parroketako erretoreek eta gainerako apaizek egiteko zuzena zuten hori euren parroketako jardunean. Horra, beraz, zergatik hasiko ziren argitaratzen Euskal Herrian ere doktrinaren azalpeneko liburuak eta sermolaritza ere hobetzen. XVIII. erdi aldera hasi ziren lanak gehitzen. Debozio liburuak XVII.ean ere baziren, eta horren adierazgarri dira lehen eman diren izen ezagunak. XVIII.ean doktrinaren azalpenak gehituz joan ziren: Otxoa Arinen *Doctrina Christianaren explicacioa*, Larizen *Cristau Doctrinaren explicacioa aur-entzat ta andi-entzat*, Ubillosek eginiko Fleury-ren obra eza-gunaren itzulpena, *Doctriñ berri-ecarlea, christauari dagozcan eguia sinis-beharren-berria dacarrena*, eta Kardaberaz eta Mendibururen lanak.

Bada, bestalde, XVIII.ean, gertakizun bat nabarmengarria eta esanguratsua: Frantziskotarrek, 1745ean, Zarauzko Komentua herri-mixiolarien kolejo

---

3. "El *Diccionario* de Terreros es, sin duda, el más importante del siglo [...]. Su importancia, desde el punto de vista léxico, es tal, que se han podido contar unas cien mil palabras más que en el diccionario de la Academia". LÁZARO CARRETER, Fernando. *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*. Barcelona: Editorial Crítica, 1985 (1. argit.: Anejo XLVIII de la *Revista de Filología*, CSIC, Madrid, 1949), 286. or.

4. Gregorio Mayans-en lanak, Antonio Capmany-renak, Jovellanos-enak eta abar aipa daitezke hemen, baina horiei eta enparaueri buruz informazio ugari aurreko oharrean aipatu den lanean aurki daiteke.

5. LARRAMENDI, Manuel de. *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas: Demostración previa al Arte, que se dará a luz de esta lengua*, Salamanca, 1728; *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*, Salamanca, 1729; *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, San Sebastián, 1745. Gaztelarazko Martinez Gayoso-ren *Gramática de la lengua castellana* 1743an argitaratu zen, eta Academia Española-rena 1771n.

6. ETXEBARRIA ETXEBARRENA, Nagore. *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX, Labayru Ikastegia, Bilbao, 2005 (Biografiak: Zelestino Solaguren O.F.M.)), 67-101. or.*

bihurtu zuten. Aita Villasanteren eskutik izan dut gertakizun horren berri, eta hona bere hitz argiak:

1745. urtean Zarauzko Frantziskotarren Komentuak moldaera berri hori hartzen du, hots, herri-mixiolarien kolejio bihurtzen da. Etxe hauek Frantziskotar Ordenaren barnean aparteko nortasuna zuten, beren arau eta erregele bereziak, etab. Eginbide berariazko bati buruz eraikitzen ziren: herrietan mixioak predikatzeke, jendea kristautasunean barnetikago hezi eta eskolatzeko<sup>7</sup>.

Ez ziren bakarrak izan misioak ematen, baina Frantziskotarren izena egiteko horretan handia izan zen eta, bide batez, beste edozein okasio berezitateko sermolaritzan ere. Misiolari bezala entzute handikoak ziren Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Nafarroako herri euskaldunetan ere ezagunak ziren, eta luzaro iraun zuen haien ospeak, XX. mendeko bigarren erdian eliz ekintza-moldeak aldatzen hasi ziren arte, hain zuzen. Beraz, Zarauzko komentuz hartu zuten erabakiaren ondorioak ezin hobeak izango zirenean zalantzarik ez dago, eta hizkuntzaren erabileraren aldetik ere euskararen mailak asko igoko zuen, ez bakarrik Frantziskotarrengan, beste guziengan ere, eta euskararen estima ere gehitu egingo zen herri xehearen baitan. Begira zer dioen A. Villasantek honetaz ere:

Eta, jakina, zeregin hori Euskal Herrian taxus betetzeko, euskara menderatu beharra zegoen, eta fraide haiek hartara jarri ziren. Horrela euskaltzale, euskal idazle eta gramatikalariei kabi bihurtu zen Zarauzko komentua. Aita Palacios, Aita Añibarro, Aita Juan Mateo Zabala, Sarobe, Arteta, Jose Kruz Etxeberria etab. kolejio honetan bizi eta euskal arloan egindako lanengatik aipagarri dira<sup>8</sup>.

Hemen dugun ondareko izen gehienak ere loturik egongo dira Zarauzko kolejio horrekin eta hor jasotako formazioarekin. Sorondori buruz Solaguren-ek ez du Zarautz aipatzen, baina hango kolejioaren berri dugunez, ez litzateke desegoki hartan pentsatzea honako hau dioenean:

Predikari egin zuten 1789an eta handik urte bira Elgoibarko San Franziskora joan zen irakurle; han komentu-predikari legez ere jardun zuen, eta osteko urteetan baita Tolosa, Mondragoe, Sasiola eta Arantzazuko komentuetan ere<sup>9</sup>.

Solaguren-en bizitza laburpenak irakurriz, ez dirudi Zarautzik pasa beharrik zegoenik predikari izendatua izateko, agian alderantziz, predikaritarako gai hautatua izan ondoren Zarautzera joan beharra, bai, egiteko horretarako prestatzera:

---

7. VILLASANTE, Fr. Luis. *Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiana* [Juan Antonio Moguel ta Urquiza]. Edizio kritikoa. Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, Bilbao, 1987, 14. or.

8. Op. cit., 14. or.

9. ETXEBARRIA, N. Op. cit., 97. or.

1801ean predikari egin eta urte berean sartu zen Zarauzko Misiolari Apostolikoan Kolegiara. Hasierako urteak sermoiak idazten, predikuginen eta euskara sakonago ikasten eta aztertzen eman bide zituen<sup>10</sup>.

1773an egin zuten predikari, eta handik lasterrera [...] Zarauzko Misiolarien Kolegiara bildu zen<sup>11</sup>.

En 1807 fue declarado idóneo para la predicación<sup>12</sup>.

Ziurrenez, Zarauzko Misiolarien Kolejioa giroaren fruitua izan zen, ordurako kexak asko ugarituak baitzeuden Espainiako gizartean sermolarien prestakuntza eskasez eta sermoien gehiegikeriez eta abar. Euskal Herrian ere ez ziren faltako kexa horiek, eta, esan den bezala, euskararen erabilera txiroaz ere bazen ardua. Baina onartu beharra dago Zarauzko kolejioa garaiz sortu eta eratu zela. Egia esan, sermolari eta sermoi eta doktrina idazlerik onenak geroztik joan ziren sortzen, eta artxiboetan arakatu ahala, hainbeste eskuizkribu agertzen eta argitaratzen ari dira goian aipaturiko data horiei dagozkionak: Joakin Lizarragaren sermoi eta doktrinaren azalpenak, Juan Antonio Mogelen aipaturiko *Cristaubidearen Icasbidea*, Felipe Agustín Otaegurenak, Juan Mateo Zabalarenak, Pedro Antonio Añibarrorenak, Aita Migel San Frantziskoren sermoi bi eta platikak, Juan Ignazio Astigarragarenak<sup>13</sup>, eta, argitaratu gabe badaude ere, ezin izango dira berriro ekarri gabe utzi Frantziskotarren artxiboetako milaka eskuizkribuak, eta ondare honetako eskuizkribu datatu denak eta gainerako gehienak, solteren bat izan ezik. Denak dira garai horretan Euskal Herriko hegoaldean gertatu zen loraldiaren agerakari. Hegoaldea aipatu bada, ez da, inola ere, iparraldekoa bazterrean utzi asmoz, honek bere ohiko bide aberatsari jarraitzen baitzion.

Esango balitz euskal oratoriari ez zaiola merezi duen arreta eskaini, ez litzateke, agian, ongi hartua izango, sermoi-libururik ez baita falta gure argital-

---

10. Op. cit., 67. or. (Agirre, Vicente).

11. Op. cit., 67. or. (Agirregoikoa, Pedro).

12. ETXEBARRIA ETXEBARRENA, Nagore; APRAIZ OLIDEN, Ainara. *Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854) Sermoitegia, XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua*. Bilbao: Labayru lkastegia, 2007, 20. or.

13. Hurrenkera berean, hona hemen egileak eta argitaratzaileak: LIZARRAGA, Joakin (PAGOLA, R. M. et alii). *Bonaparte Ondarea: Hegoaldeko goi-nafarrera 1, 2, 3*, 1996; eta ONDARRA, F. *Ongui litzetzen laguntzeco itzgiaic*, 1984; ONDARRA, F. *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, 1990; APECECHEA, J. eta ONDARRA, F. *Jesukristo, María eta Santuen Bizitzak*, 1994; APECECHEA, J. *Doctrina Christioaren Cathechima. Joakin Lizarraga Elkanokoa*, 2004; MOGUEL TA URQUIZA, Juan Antonio (VILLASANTE, L.). *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina cristiana*, 1987, eta (PAGOLA, R. M. et alii) "Cristau Eracastle Euskalduna", *Bonaparte Ondarea: Gipuzkera 4. alea*, 1993, 2.411-2.590. orr.; OTAEGI IMAZ, B. eta ONDARRA, F. *Felipe Agustín Otaegui, Beizamako Erretorearen Eskuizkribuak*, Beizama-Donostia, 1993; VILLASANTE, Fr. Luis: *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiak. Edizio kritikoa I eta II*, 1996 eta 2000; Pedro Antonio AÑIBARRO: URGELL, Blanka. "Añibarroren idazlanak I: Nekea arindurik", *ASJU XXI-I*, 1987, 211-263. or. eta "Añibarroren idazlanak II: Lora sorta espirituala (1803)", *ASJU XXII-I*, 1988, 7-92. or.; Fr. Migel SAN FRANTZISKORENA (Zuzaeta) eta Fr. Jose JESUS-MARIARENA (Arakistain): ONDARRA, Frantzisko eta UNZUETA, Antonio. *Fr. Migel San Frantziskorena (Zuzaeta)*, Fr. Jose Jesus-Mariarena (Arakistain), XVIII-XIX. mendeetako Karmeldarrak, *Idazlanak*, Markina-Xemein: Karmel Sorta 10, 1997; ETXEBARRIA, N., APRAIZ OLIDEN, A., 12. oharrean aipatua.

penetan. Baina, kontutan hartuz gero zenbateraino bete duen beste edozein hutsune euskal literaturaren historian, ziurrenez arrazoizkoa litzateke pentsatzea ez dela sekula oratoria horren azterketa sakonik egin, ez direla literatura horretan erabili izan diren errekurtsio literarioak arakatu, ez dela oratoria horren barneko bilakabidea jarraitu, ez dela darabilten hizkuntza bera ere zehaztasunez begiratu, eta, oro har, ez zaiola kasu askorik egin euskararen literaturaren zatirik handienari. Eta bere garaian ere argitaratu ziren hainbat deboziozko liburu eta antzeko, herrian hedatu ere egin zirenak, eta, astiroa-go, baita doktrina-azalpen eta sermoi-gai zen materiala ere.

Nolanahi ere, azken hamarkadetan asko argitaratu da, eta, ikerlariek material horren irrika handirik ez agertu arren, ezin izango zaio muzinik egin ez literatura-mota horren ugariari, ez izan duen eraginari, ez hor aurkitzen diren euskararen lekukotasun eta aberastasunei edozein lan egin nahi delarik ere euskararen eta euskal literaturaren historiaren inguruan, lanak uste baino hutsune larriagoak izaterik nahi ez bada behinik behin.

Eta argitaratu dena asko izanik ere, euskal oratoriari buruzko lan osoagoak nahi balira egin, ez litzateke gauza erraza izango oraindik artxibotan gordeak dauden beste hainbeste eskuizkribu edo gehiago aldez aurretik ezagutu gabe. Bada, beraz, zer egin, eta artikulua honek ondare horietako baten berri eman nahi luke. Lan honen helburua ez da ondareko eskuizkribu bakoitzaren zehaztasun guziak ematea eta aztertzea, hori haien argitalpenarekin batera egiteko lana baita, ondarearen ikuspegi zabal bat eta bildumaren ezaugarri nagusiak eskaintzea eta hark izan ditzakeen balioak azaltzea baizik.

### **3. EUSKARAZKO SERMOI-ONDAREA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN**

#### **3.1. Ondarearen deskribapen orokorra**

Bizkaiko Foru Aldundiak dituen euskarazko eskuizkribuak bere Liburutegian eta Artxibo Historikoan aurkitzen dira banatuak. Liburutegikoak, dagoneko editatuak, Luis Luziano Bonaparte Printzearen ondarekoak dira<sup>14</sup>. Hemen aurkezten direnak Artxiboan daude eta, alde batetik, oratoria sakratuko ondare aski ugari bat osatzen dute “Euskera” izenpean sailkatuak eta, bestetik, dokumentu kopuru txikiago bat “Jesuitas” izena duen ondare batean kokatuak, hauek ere gai beretsukoak ikusiko denez<sup>15</sup>.

##### **3.1.1. Euskera**

Fitxeroak. Ondare hau 16 fitxerok osatzen dute. Lehenengo hamalauak beren izenez eta zenbakiz, 1etik 14ra, markatuak daude, eta beste bi ize-

---

14. PAGOLA, Rosa Miren *et alii*. *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak*, 26 ale, 1992-1999, Bilbo.

15. Bizkaiko Artxibo Historikoa: “Euskera” saila eta “Jesuitas” saila, hurrenez hurren.



nik gabeak. Hauek, bata berdea, 15a izango da, eta beltza, 16a<sup>16</sup>. Fitxeroek berrogei eskuizkribu inguru dituzte bataz beste. Eskuizkribuen kopurua zehaztasunez finkatzea ez da erraza, zenbait kasutan eskuizkribu batean esku eta testu ezberdinen presentzia nabaria izan daitekeelako, eta agian zailago orri solteek osatzen dutenean dokumentu bakartzat ageri dena, dokumentu luzeagoetatik askatuak izaten baitira maiz, eta dokumentu osoak ala zati galduak diren ez da beti erraz erabakitzen. Edonola ere, lauhun eskuizkributik gora dira, eta horrekin antzeman liezaieke ondarearen handiari eta garrantziari.

Eskuizkribuen neurriak, luze-zabalean, beti berdinak dira. Bada orri solte eta urraturen bat txikiagoa edo luzexegoa, azal edo estalkiren bat handiagoa, koaderno txikiagoren bat ere, baina gainerako denek orrilaurdenekotan daude, 15 x 21 zm.ko kuartiletan, alegia. Izan, erditik tolesturiko folioak dira, eta, bata bestearen barnean sartuz, koadernotxotan eratuak daude, josiak, baina baita josi gabe ere. Inoiz edo behin, folio tolestu horiek, testuak erakusten baitu, elkarren jarraian doaz bata bestearen barruan kokatuak aurkitu arren<sup>17</sup>, baina kasu bakan hauetan orrilaurdeneko orri bikoitz horiek ez dira josiak egoten.

Deigarria gertatzen da zein tamaina berdinekoak diren eskuizkribuak. Izan ere, ez dute ez azalik ez beste bereizgarririk eta testua zuzenean hasten da lehen orrialdearen goian. Norberak erabiltzeko testuak direla ageri dute. Baina horrek ez du esan nahi iraupen asmorik ez zutenik, alderantziz baizik. Neurri eta formaren berdintasun zainduak, ongi eratu eta josiak, aurrez zikinean egin ondoren kontu handiz idatziak kasu askotan, noizko eta norako ere seinalatuz zenbait aldiz, eta abagune ezberdinetan erabiltzeko oharrak han-hemen sartuz: horiek denek garbi ematen dute aditzera testua ez zela behin edo gutxi batzutan baizik emateko prestatzen. Adibide baterako, 1. fitxeroko hamaikagarrenean honela dio hasieran: “Domingo de Ramos: y puede servir para Minerva bariando (sic) algo la introduccion, como esta al fin”; eta amaieran: “La misma para Minerva con la introduccion siguiente”. Eta barnean zenbait lerrori markak ezarriz, aldagarriak bairira aukeren arabera.

Eskuizkribuak aski ongi kontserbatuak aurkitzen dira oro har. Badira, noski, hezetasun mantxez, ertz zimurtuez, urratuez, pipiek eragindako kalteez andeatuak, baina ia ez dago erabat irakurtezirik, eta irakurketa zail gertatzen denean ere, aiseago izango da egilearen letra bihurriagatik. Dena den, testu osoak hobeto aurkitzen dira, oro har, orri eta kuartila bikoitz solteak baino.

---

16. Fitxeroetako eskuizkribuei dagokienez, fitxero bakoitzean duten ordenari jarraituz, “lehenengoa”, “bigarrena” eta abar erabiliko da. Eta “Jesuitas”ekoentzat ere berdin.

17. Esaterako, 6. fitxeroko berrogeita hamalagarrenak bost orri tolestu eta kuartila solte bat azkenean ditu. Orri tolestu bakoitzak, kanpokitik hasi eta barnekoeneraino, testua jarraitzen du bere lau orrialdeetan, eta azken kuartila solteak bosgarrenaren jarraian.

Ondarearen izena “Euskera” dela esan da, eta dokumentuak fitxerotan daude. Saillkatuak daude, noski, baina saillkapenak behin behinekoa dirudi. Fitxero bakoitzak bere izena du. Izena izen propioa da zenbait kasutan; behar bada, ezarri zaion izenak fitxero horretako eskuizkribu zenbaiten edo guzien egilearena dela agertu nahi balu bezala. Eta egilearen zalantzarik ez da sinatuak ageri diren testuetan, baina fitxero denetan ageri dira, baita izen propiodunetan ere, egilearen izenik gabeak, eta esan daiteke zenbait kasutan ez dela ikusten zergatik izan diren izen horren pean eta fitxero horren barnean kokatuak<sup>18</sup>. Agian, kokatu zirenean, ezaugarriren bat edo gehiago nabaritu bide ziren izen beraren egiletza ontzat hartzera bultzatzen zutenak. Izan ere, izenik ez eman arren, egile konkreturen baten aztarnak susma daitezke zenbait aldiz, lehenengo eta behin letra-mota, oharrak sar-tzeko era, latinean eginiko ziten bereizketa, amaiera formulak eta abar, eta lagun dezakete eskuizkribua egile ezagunen bati esleitzen. Halere, esan daiteke aski badaezpadakoa gertatzen dela maiz testu hau edo bestea norena izan daitekeen erabakitzea, eta, kasu garbiak ere badiren arren, zalantzazkotan egiletzaren ukapenera errazago makurtzen da bat haren onspena ebaztera baino.

Beste batzuetan, fitxeroei ezarritako izena edozein arrazoiz harturikoa dela dirudi, esaterako “Tolosa”, paperen ur-marketatik aterea dirudiena; edo, inoiz, zirribororen batean agertzen den abizenen batekoa. Zenbait egileren sinadurek ziurtatzen dutenean eskuizkribuko testuen egiletza, “Varios” izena du fitxeroak, eta egile bakoitzaren izenak burutzen ditu jarraian datozen doku-mentuak. Badira “Anónimos” izeneko fitxeroak ere. Kasu hauetan ez dirudi, dataren arabera izan ezean, eskuizkribuak saillkatuak daudenik, bata bestea- ren jarraian ageriko arrazoirik gabe kokatuak baizik.

Fitxero guziek daramate testuei dagokien mendeen data. Gehienak XVIII.- XIX. mendeetakoak dira, eta hori horrela izango dela onartzeak ez du berez kezkarik sortzen urteko data zehazten ez dutenen testuetan ere. Mendeaz ari garelarik, ez dago hain zehazki bereizterik mende horien artean, egile bera baitute kasu askotan nahiz mende bateko nahiz bestekoek eta, gainera, mende batetik besterako jauzia ez baita berez jauzia, denboraren jarraipen arrunta baizik<sup>19</sup>. Eta data aztarnarik ez dutenak ere erraz koka daitezke epe horietan beste ezaugarriak begiratuz. Badira XX.eko zenbait ere.

### 3.1.2. Jesuitas

Aipatu bezala, bada beste Ondare bat “Jesuitas” izenarekin. Ondareak beste dokumentu batzuk ere baditu gazteleraz. Euskarazkoa eskuizkribu

---

18. Deigarriena, “Iriondo” izenarekin dauden 2., 3. eta 4. fitxeroak dira, bi eskuizkribu besterik ez daudelako izen horrekin agertzen direnak.

19. Hain zuzen ere, L. Mitxelena garai hori 1700 eta 1850 daten barnean hartu eta azal- du zuen bere *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, 1960, 83-123. orrialdeetan.

bakarra da hiru koadernotxotan. Aratxe larruz eginiko beste libururen baten azala aprobetxatzen da estalki gotor bezala. Ondarearen sinadura “Jesuitas 0003/005” da. Aurretik “Euskera” Ondarean aurkitzen omen zen, eta hori agertzen dute koadernoek ageri dituzten oharrek ere. Ez dut ikusi zergatik izan diren “Jesuitas” sailean sartuak. Aldaketa hori dokumentua hobeki kokatzeko egingo zen, noski, baina ez diot antzeman zertan oinarritu den erabakia<sup>20</sup>. Agian, lehenbiziko kokagunea “Jesuitas” Ondarean izan zezaketen, eta gero, “Euskera” sortu zenean, euskarazkoak ziren eskuizkribu batzuentzat Ondare berri hau kokagune egokiagotzat iritziz ez ote ziren aldatuak izan?

## **3.2. Edukien azalpen orokorra eta egileak**

### **3.2.1. Euskera**

Euskal Herrian eta euskarazko sermoigintzan, ez dira egile asko testuak izenpetuak utzi dituztenak. Harrigarria izan daiteke, agian, jokabide hori gaur egungo ikuspegirako, baina, ziurrenik, ez dago azalpen berezirik bilatzen ibili beharrik. Sermoiak, gehienbat, idatzi egiten zituzten aldez aurretik, horrek asko laguntzen baitu testua ongi egituratzen edukiaren aldetik eta hizkuntza zuzendu eta orrazten. Sermoiak ez zen eliztarren aurrean irakurri egiten, buruz ikasi eta zuzenean ahoz eman baizik. Hori horrela izanik, aurreneko lana testua idaztearena izaten zen, ikasteko eta, komeni izanez gero, baita eskematxoren bat prestatzeko ere, pulpituari lagungarri eta norberaren buruaren konfiantzarako izan zedin. Dударik gabe, hori lan arrunta izaten zen eta hastapenetan erakutsi ere horrela erakusten zitzaizkien gazteei. Idaztea, beraz, ez zen aparteko lan bezala hartzen, eta lan hori norberarentzat zenez, ez zen izenik ipini beharrik. Esango genuke, galdera ez dela zergatik ez diren egileen izenak ageri, batzuek zergatik izenpetzen zituzten beren sermoiak baizik. Ziurrenik bazekitelako komentuko anaiaren batzuek ere erabiliko zituztela beren sermoietarako, eta, nork jakin, noizbait argitaratu egin zitezkeelako ere agian.

Nolanahi ere, egilearen izenaren garrantzia, ezertan txikia izatekotan, sermolaritzan izan daiteke hori. Ez diot hau sermolaritza gutxiesteko, baina nahiz edukiaren aldetik, nahiz formarenetik, eredu ia erabat berdinen gainean taxutu eta idazten baitziren, eta, maiz, baita inoren testuak hurbiletik kopiatuz ere. Horrek asko eskasten du testu horiek izan dezaketek ekarria eta, ondorioz, baita egiletzaren garrantzia ere. Ongi begiratuta, garai bateko eta eskola berdineko sermoi multzoak bere osotasunean hartzeak ez dirudi bekatu handiegia denik ere. Inoiz edo behin bakarren bat

---

20. 15. eta 16. fitxeroetako eskuizkribuei ohar hauek erantsi zaizkie: “(los nºs 16 - 17 - 18 pasan a Jesuitas)”, eta “Nota: el nº 16 - 17 - 18 pasa a Jesuitas II nº 3 q. completan el libro”. Erabaki aski hartu-berriaren antza du, batetik; eta “q(ue) completan el libro” izan liteke azalpena, baina ez da ageri zein liburuz esaten den hori.

asko nabarmenduko balitz, aurkituko litzateke nola bereizi, bere izena ezagutu ez arren.

Esku artean ditugun ondare hauetako testu gehienek ere ez dute egile ezagunik. Izenez ezagunik esan nahi baita, izena ageri den zenbait kasutan ere izena besterik ez baitugu ezagutzen. Frantziskotarrei buruzko aipamenak aski ugariak dira han-hemenka eskuizkribuetan eta Elgoibarko komentua dakarte behin eta berriz, eta Arrasatekoa ere maiz aipatzen da<sup>21</sup>. Zorionez, Zelestino Solaguren Arantzazu eta Zarauzko Frantziskotar sermolarien biografiak idazten ari omen da<sup>22</sup>, eta horrek behar bada, letrak, estiloak eta abar beste ezagun batzuenekin erkatuz, lagundu ahal izango du hemen ageri diren zenbait egileren izenek nori erantzuten dioten ezagutzen eta anonimoak ere norenak izan daitezkeen jakiten.

### **3.2.1.1. Lehenengo fitxeroa: Fr. José Ramón de Sorondo. Siglos XVIII - XIX**

Fitxeroak 35 eskuizkribu ditu. Hobeki esanda, 35 baino banakaren bat gehiago, bi eskuk idatzitako testuak ere baitaude. Sermoiak eta dotrinako gaien ingurukoak dira. Denak euskaraz idatziak, gaztelerazko testu pare bat izan ezik. Sermoiak 6-8 orrialde hartzen dituzte gehienek. Kontserbazioaren aldetik, ez daude gaizki, badiren arren hezetasunak eta ertz zimurtuak; agian hondatuena hogeita laugarrena da, Trinitate eguneko sermoia, 5 orri, erditik alde bietara doblatua egon dena eta horrek eraginiko zulo bat dute orri denek, ertzak zimurtuak eta orri galduak. Hala ere, bai honek bai gainerakoei, irakurketa ona dute, oro har, ia denek.

Eskuizkribu bat bereiztekotan, hogeita hamargarrena hartuko genuke. Besteak baino askoz luzeagoa, 16 orrialdeko sermoia baita Jesukristoren pasioaz: *Passio Domini nostri Jesu Christi secundum quatuor Evangelistas* (sic) dio izenburuan. Ostiral Santu egunekoa ziurrenez. Amaieran, "O.S.C.S.R.E. Fr. Jose Ramon de Sorondo", errubrikaz.

Lehen esan den bezala, fitxeroei testuen egileen izenak ezarri zaizkie ezagutzen zirenetan, eta beste zenbaitetan eskuizkribuetan kausitu den izenen batena. Lehenengo honena "Sorondo" da. Fitxeroko testu gehienak bereak direla esan daiteke: bere izenaz sinatuak hogeitaz inguru, eta beste zenbaitetan letra-motak esku bera salatzen du. Erdietan edo "Sorondo", eta besteetan "Fr. Jose Ramon de Sorondo", behin "Fr. Joseph Ramon de Sorondo". Edonola ere, letrari eta beste zertzeladaxoren bati begiraturaz, ez dirudi fitxeroko eskuizkribu denak bereak direnik. Izenaren aurrean, laburdura gisa, zenbait hizki sartzen ditu: "O.S.C.S.R.E." gehienetan, eta inoiz antzeko aldakiak ere bai: "O.S.C.S.R.E.L.S." Beste egile batzuek ere berdin sartzen dituz-

---

21. Harritzen du apurtxo bat Frantziskotarren Arantzazuko Santutegiaren eta Zarauzko komentuen aipamenik ez aurkitzeak.

22. ETXEBARRIA, N. Op. cit., 24. or., 4. oharra.

te. Dirudienez, Eliza Ama Santuaren dotrinaren menean paraturiko testua dela aitortzen da<sup>23</sup>.

Sermoietan ageri diren aipamenek-eta Sorondo Frantziskotarra izan zitekeela iradokitzen dute. Honako aipamen hau ere bere testu baten ageri da: *San Luis Franciaco Erregueac (zeñaren funcioa celebratcen duen beraren seme tercera ordenaco Hermanoac)*. Frantziskotarren artxibotako sermoin katalogoan “José Raimundo Sorondo” bat aipatzen da, eta horrela izendatzen du egileen bitzen eranskinean ere Solagurenek. Katalogo horretan sermoi bakar batekin ageri da, izenpetua dagoena, bestalde, baina ez da zehazten izenaren forma. Hala ere, bien arteko parekotasunak handitxoak dira pertsona beraz ez garela ari pentsatzeko, eta, azken finean, “Raimundo” forma Sorondok berak bere buruari zegokion latinez idatzitako testuren batek aterea izan daiteke, “Jose Ramon” izan zitekeen arren eguneroko bizitzan<sup>24</sup>.

### 3.2.1.2. *Bigarren fitxeroa: Iriondo. Siglos XVIII – XIX*<sup>25</sup>

Fitxeroak 25 eskuizkribu ditu. Oro har ongi kontserbatuak daude, hamairugarrenean ur mantxa lodi batek orri guztietan zati horren irakurketa eragozten duelarik. Gaien aldetik denetariko sermoiak dira denak. Iriondok berak sinatua lehenengoa baino ez dago; besteak ez dirudite bereak direnik, euren artean esku berekoak antzeman daitezkeen arren. Hamaigarren eskuizkribuak –gaizki kontserbatua hau ere– hasieran, goian ezkerrean, dio: “S. Pedro

---

23. Sermoi askoren amaieran sigla edo inisial horiek agertzen dira maiz, letraren bat gora-behera. Sermolari asko Frantziskotarrak izan zitezkeenez, Joxe Arregi Frantziskotarrari argitasunen bat eskatu nion, eta hain erantzun zehatzaz agertu zuen adeitasuna eskertzen diot:

“Ikusi dut O.S.C.S.R.E. sigla nahikoa maiz agertzen dela XVII-XIX. mendeetako sermioletan eta eliz idazkietan, “irakaspen heretikoak” gaitzetsi eta “egiazko doktrina” defenditu nahi dutenetan bereziki. Esango nuke, espainiar penintsulako idazkietan ageri dela batik bat. Ez du zerikusirik kongregazio erlijioso baten izenarekin, kongregazio ezberdinetako sermolari nahiz idazleekin loturik ageri baita. Eta honako hau ageri da sermoi baten amaieran: “Oratio sub correctione sanctae matris ecclesiae”. Gakoa hor dagoela iruditzen zait. Kasu horretan, sigla “O.S.C.S.M.E.” izango litzateke, noski. Eta horren aldakiak izango lirateke gainerakoak: O.S.C.S.R.E = “Oratio sub correctione sanctae romanae ecclesiae”. O.S.C.S.M.E.R = “Oratio sub correctione sanctae matris ecclesiae romanae”. O.S.C.E.J.S.R.E = “Oratio sub correctione et iudicio sancta romanae ecclesiae”. O.S.C.S.R.E.L.S = “Oratio sub correctione sanctae romanae ecclesiae, licet scire”. “Licet scire” horrek “naturalmente, noski” esan nahi du latinez.”Oratio” ordez, “opus” ere izan daiteke zenbait kasutan”.

Nagore Etxebarriak ere horren antzera dio: “Omnia Subiucuntur (sic) Correctioni Sacrae Romanae Ecclesiae”, op. cit., 39. or.

24. Op. cit., 709. eta 97. or. Ikus baita ere izen-abizenen transkribaketaz dioena 31. or. Data bat ere ageri da 10. eskuizkribuko eskuizkribuaren azken orrialdean, gutun itxurako hasiera batean: “Ayzarna 29 de oct.re de 1847”. Solagurenek ematen dituen haren jaiotza-heriotzen daten barruan sartzen da –“1761?-1848” (op. cit., 66. eta 97. or.)–, baina sermoia ez dago sinatua eta letra-motak ere ez du garbi agertzen bereak direnik ez sermoia ez eta gutun-burutzako hartu duguna ere.

25. Izenburuaren azpian “Sin firma, sin data” ageri da.

Lequeitio 1805”, eta eskuinean: Fr. Pedro Franc<sup>o</sup> de Echevarria” eta errubrika. Bosgarren eta hamahirugarren eskuizkribuak ere azken honenak dirudite.

Solagurenek Millan Iriondo bati buruz, Azpeitiko semea dela dio, 1764ean jaioa, eta Oñatin hil zena 1809an<sup>26</sup>. Bera izan daiteke, baina ez da ageri datu askorik. Solagurenek dioenez, Mondragoeko komunitatean egin zuen denboralditxo bat, eta horrekin ongí datoz berak sinaturiko bi sermoietan ageri diren datuak: fitxero honetakoan: “1806. Escoriaza”, eta hirugarrenekoan: “Elorrio”, “1804” eta “Ezkoriaza, 1805”.

Fr. Pedro Francisco de Echevarria-z ez da ezer besterik ageri.

### 3.2.1.3. Hirugarren fitxeroa: Iriondo, Siglo XIX, 1814 – 1819

24 eskuizkribu ditu. Iriondok sinatua, hirugarrena bakarrik. Beste denak beste egile batenak direla esango nuke, seigarren eta hamargarreneko lehenengo orrialde gehienak izan ezik, hauek beste norbaitenak baitirudite. Haue-tan ez ezik, beste batzuetan ere ez da harritzekoa bi eskuren presentzia edo batena bi garai ezberdinetan, esaterako hamabosgarrenean lehenengo bi orrialde esku batek idatziak eta hirugarrenetik aurrera beste batek, eta bietan gaia bera da: seme-alaben gurasoekiko obligazioak; hamalagarrenean eta hemeretzigarrenean, berriz, egile bera da, baina garbi agertzen da aukera ezberdinetan aprobetxatu dela sermoia. Gainerakoan, sermoien gaiak ohikoak dira. Eta eskuizkribuen egoeraz, ez dute irakurtzeko arazorik. Hona hautatutako adibide pare bat (1. irudia):

Esanizuen egun zorzi, cer obligacio duen murraralleac. Ezta asco confesore Jaunari esatea, nola onelaco dama bategatic esandezun emacume galdu bat dala, edo beste guisa onetaco injuriaren bat. Biurtu bear diozu vere fama, baita ere baldin zure esan gaizto orren vitez galerazi badiozu vere moduco ezconzaren bat, edo gueratu bada zucen videric artu gabe, calte oec gucioc zure gañera erorcen dira, ta zuc jaso bear diozczazu: Ara gueiagio baldin tasco-tan guertatu oi dan vezela: dama orrec jaquiten badu, nola zugandic verri gaizto ori atera dan [...].

Orra zembat embarazoren artean arquitzen zeran, gauzac leen zeuden estadu artan bertan paratzeco? Bai aleguia: esan eguidazu bestela: zuri dama orregatic orrelaco gauza aditu dizuten oriec, usteco due egui, eguia esan diezula [...]. Nola besteric sinistaracico diezu, zu moduric ascotara saiatuagatic, esango due erac, esanaz eren artean, esanaz damutu zatzula, nai zenduquea-la orain estali, baña alferric empeñatuco zerala orretan [...], orra chingar orrec cer su aundia eguin duen, mendi guciari baditceca [...], olioia, edo balsamoa beste gauzaren batequin bein nastu ezquero, edo lurrera bein ixuri ezquero, ezdituzu cembat, eta goapoagoa zeran atzera oncian sartuco, leen ciran becin garbi<sup>27</sup>.

---

26. ETXEBARRIA, N. Op. cit., 84. or.

27. Aurreko aipamena eta hau, 3. fitxeroko lehenengo eskuizkributik jasoak.



2

2. Punto, Sigue del mismo asunto, que el Domingo anterior.

Nun dira que es un mormonismo que es un equiduco calteac exre-  
 media xeroran odixan neque, ta embaxarac, Aida Nere C. beste  
 contra xuzen bat. Esanizuen egun xozari, cer obligacio duen murt-  
 mazalleac. Esta aso confesore Jaunari esateca, nola onelaco da  
 maitegatic esandorun emacume galdu bat dala, edo beste quida  
 onetaco infuniaran bat. Bixutu beax dionu vere fama, baita ere  
 baldin xuzen esan gairto oxzen vider galaxari badionu vere mo-  
 duo ezconzaren bat, edo quexatu bada xuzen videric artu gabe,  
 calte oec quidoc xuzen gaxera erocen dira, ta xuc jaso beax dion  
 caru: Ara quidiago baldin; asotan quexatu bidan xozela. Da  
 ma oxre jaguizen badu, nola xugandit xerri gairto ori atexa  
 dan, ta sentimentuzen parior ez padagui cer equin, eun sote  
 gatu bada; Jaungoicoac Oxduan aguincen diru, xozela axen  
 billa, equin-ala quia equin dexarula aren aserrea gortaxeco, ta  
 beraxequin adizquidexeco, bestela ezaituala berac ere zu be-  
 re oxacian artuco. Oxra xembat em baxaroren artean ar-  
 quitzen xeran, quuzac leen xenden estadu artan baxtan pa-  
 raxeco? Bai aleguia: Etan equidocun bestela: xuxi dama oxre-  
 gatic oxrelaco gawza aditu diruten oxice, uttedue equie-  
 quia esanditxula, bada oxain, nola, edo cer moduz quenduco  
 dionu xuc esse ox? Nola besteric sinistaxacio dionu, xumo-  
 duric astotaxa xaiatugatic, esangodue exac, esanax oxen  
 artean, esanax xamutuxatxula, naizenduqueala oxain estali,  
 danã afferxic empenatuco xexala oxretan; equia xian ezpatiz,  
 ez xenduala xuc esango, eta bestec amenaxaren bat bota diu-  
 laco, xaditxala oxain, ta axen oxguera xuzendu naizen. Oxra  
 Cer frutu adexaco elrun.

1. irudia. Sermoi baten lehen orrialdea (3. fitxeroa, lehengo eskuizkribua)

### 3.2.1.4. *Laugarren fitxeroa: Iriondo, Siglo XVIII, 1772 – 1794*

18 eskuizkribu ditu, denak ongi kontserbatuak eta erraz irakurtzekoak. Denak daude datatuak. Hemen ez dago Iriondoren eskuko testurik. Baina fitxero honetako eskuizkribu denak egile bakar batenak dira ezaugarri guztiek ikustera ematen dutenez: letra-mota zaindu eta pertsonalak, oharrek, zitek, sermioen amaierako xehetasunek eta, oro har, denean jartzen duen arreta handiak. Areago ere esan daiteke, hain agerikoak baitira aipatu diren ezaugarri horiek, ondare guzian badirela hainbat eskuizkribu, fitxero ezberdinetan sakabanatuak, egile horri atxiki dakizkionak. *Laus Deo* izena emango nioke, esaldi horrekin eta datarekin, azpian errubrika eginez, amaitzen baititu sermoi asko, garai batekoak behinik behin. Hain da begiratu, ezen testuak berriro kopiatuz forma hutseko detaileak ere arta handiz aldatu egiten dituela, agian entzuleria ezberdinetara egokitzeko edo, besterik gabe, testua hobetzeko. Esaterako, hamahirugarrena, hamalauugarrena eta hamaseigarrena ia berdinak dira hirurak, hirurak urte berekoak, baina aldaketa formal pilatxo bat dituzte elkarren artean, eta edukizkoak ere banaka batzuk. Adibide txiki bat, hamahirugarrenean: “Laugarren carcela, ta goyenenena dagoana da justuen Limboa...”; hamalaugarrenean: “Eta laugarrena are gorago dagoana da justuen Limboa...”. Badira baita urte urrunduetakoak ere, aldaketa gehiagorekin, baina elkarren artean erkagarriak hauek ere, esaterako, zazpigarren eskuizkribuko sermoia dantzen inguruan da: “Contio 1<sup>a</sup> de Choreis. = año de 1781”, eta hamazazpigarrenekoa ere bai: “De choreis: el Domingo antes de S.n Juan.”, eta amaieran, ohi bezala, “*Laus Deo*: año de 1792” eta errubrika. Hona hizkeraren lagintxo batzuk:

¿Berriz norc pentsatu eta esan aldezaque, ere mutil nescachac danzaten dirala Jai arratsalde oro, (ta edateaquin,) beren conciençietaco alegueretasun espirituala manifestatceagatic?

su artzaz casoric bague bideen zucentcen, ta maneaten jardutea?

ceren bestela artuco luquean ingar andia”<sup>28</sup>.

### 3.2.1.5. *Bosgarren fitxeroa: Autores varios, siglos XVIII – XIX*

Denera, 34 eskuizkribu dira. Dituen dokumentu gehienak gaizki kontserbatuak daude: orri galduak eta hautsiak, luzaroko tolesturak, ertz zimurtu eta hautsiak, testu ugertuak, mantxa ugarirekin, eta, oro har, irakurtzeko ez hain errazak. Egileen aldetik, zenbait izen ezberdinen baitan banatuak daude eskuizkribuak. Fitxeroko antolamenduari jarraiki, hona egile bakoitzaz azalpena:

*Gregorio de Errazti, siglo XIX.* Izen honen azpian sei dokumentu sartzen dira, baina lehenengo hirurek dirudite bereak, eta hauetarik aurreneko biak dokumentu beraren zatiak dira, eta hirugarrena ere gai bereko orri solte bat da eta aurrekoen testu berekoa izan daiteke. Lehenengoaren azalean ema-

---

28. 4. fitxeroko zazpigarren eskuizkributik jasoak.



ten dira zehaztasunak: “Paneg.co de S.n Juan Bap.ta”, “Bascuenz”, “1810”, “D.n Gregorio de Errazti” eta errubrika. Deigarri da ez duela “Fray” erabiltzen. Solagurenek Gregorio Errazti bat dakar, eta hau bera izan daiteke, eta data, 1810, ez da berez eragozpen, Solagurenek “Seguran zendu omen zen, 1809az geroz” baitio, eta “*Frantsestean hil ei zen*” ere bai<sup>29</sup>.

*Zavala, siglo XVII.* Sermoi bakarra du, eta beste norbaiten zuzenketak ere baditu. Oso gaizki kontserbatua dago. Amaieran. “O.S.C.S.R.E. Zavala” errubrikaz.

*Letamendi, siglo XIX.* Gazteleraz sermoi bat, eta orri solte bat euskaraz. Sermoiak “Sermon de Corpus” dio, eta amaieran “Letamendi” izena errubrikaz, eta azpian “Mondragon”. Ez du datarik. Orri solteak “3<sup>a</sup> Adviento” dio eta, letragatik, egile berarena da. Biak oso egoera txarrean daude. Solagurenek bi Letamendi aurkezten ditu, baina Sebastian izena duenagatik bakarrik dio Mondragoeko San Frantzisko komentuan egon zela. Agian, bera da hemen ageri dena.

*Veiztegui, siglo XVIII.* Hiru dokumentu datoz honen izenean: bederatzigarrena, hamargarrena eta hamaikagarrena. Egoera txarrean daude, baina letra garbia duenez, ongi irakur daitezke. Lehena eta hirugarrena egile izenarekin –“OSCSRE Veiztegui” errubrikaz– eta erdikoa, gabe, baina, letra begiraturaz, hau ere berea izan daitekeela uste dugu. Bigarren honek, aurreko azalean, “S. Luis Rey de Francia año de 1797” dio, eta exordioan honako hau: “Orrelacoa izan zan San Luis Franciaco Erregue ceñaren festa celebracen duan gaur nere Ayta S. Franciscoaren irugarren ordena beneragarriac”. Nagore Etxebarriaren Katalogoan ez da inor ageri izen horrekin, baina aski garbi adierazten du Aita S. Frantziskoren Hirugarren Ordenakoa zela, eta beste bien egile bera bada, Veiztegui Frantziskotarra izango zenaren zalantzarik ez legoke.

*Zubeldia, XIX (1822).* Sermoi hiru orrialdetan. Nagore Etxebarriaren Katalogoan ez da ageri.

*Atorrasagasti, siglo XIX.* Izen honen pean bost eskuizkribu –hamahirugarrenetik hamazazpigarrenera– datoz: hiru sermoi oso eta biren zatiak. Ez dirudi denak batenak direnik. Ematen diren datak 1871tik 1883 doaz. Azkenengoa San Millani buruzko sermoia da eta honako hau dio: “Orain ecusi dezagun bada gure parroqui onetaco Patroi S.n Milianen vicitza cer izan zan.” Edonola ere, ez da egilearen izenik ageri.

*Fr. León María de Ymaz, siglo XIX.* Dokumentu bakarra, hamazortzigarrena. Azalean, “San Sebastian, por Fr. Leon Maria de Ymaz”. Frantziskotarra da, eta honen izenaz zalantzak agertzen ditu Solagurenek: “Ez dakigu ziur León María duen izena, José Manuel Imaz izenekoa ere ageri izan da, eta eskuizkribu baten”<sup>30</sup>. Aldaketa handitxo dirudi pertsona bera izateko.

---

29. Op. cit., 78. or.

30. Op. cit., 84. or., oharra.

*Bernardo, siglo XIX.* Hemeretzigarrena da honena. Buldei buruzko sermoia da eta “Bernardo” sinatzen du. Ez du beste argitasunik. Oso gaizki konterbatua dago: tolesturetan hautsia eta mantxa askokin.

*Juan Santos de Elduayen, siglo XIX.* Hogeigarrena. Orrialde erdi bat euskaraz: sermoi baten hasiera edo. Beste orri baten bi orrialdeak gazteleraz, eta 1824ko uztailaren 3ko testamentu bat da Gorritiko emakume batena. Sinadura: “Dn. Juan Santos De Elduayen Abad interino”.

*Fr. Jose M. de Ascasibar, siglo XVIII.* Hogeita batgarren eskuzikribua. Amaieran: “Sermon sobre la reinzidencia”. Eta beste norbaitek idatzia: “Mala letra aunque vuen (sic) sermon”. Eta azpian: “Rezar leer pasear y escribir a la tarde”, eta berriro “Rezar leer pasear y escribir si se puede”. Gero, “Fr. Jose Maria de Ascasibar”. Ez da aipaturiko Katalogoan ageri. Dena den, aurretik agertu den Zavalaren eskuizkribuan –fixxero honetako zazpigarrena–, azken orrialdean, lau aldiz idatzia dator “Askasivar”.

*Fr. Ignacio de Azcarate, siglo XVIII.* Hogeita bigarrena. Sermoia. Amaieran “Fr. Ign<sup>o</sup> de Azcarate”. Etxebarriaren Katalogoan “Juan Ignacio Azkarate” bat ageri da<sup>31</sup>.

*Recondo, siglo XVIII.* Hogeita hirugarren eskuizkribua. Azken orrialdean dio: “Platica 15. Recondo” eta errubrika.

*Bernardo A., siglo XVIII (1789).* Hogeita laugarren eskuizkribua. Letra zaila irakurtzeko. Sermoia: “Dominica 3<sup>a</sup> Quadragesima, año 1787”. Amaieran “Año 1805”. Azalaren barruko aldean zirriborro bezala, zeharka, “Bernardo”, “Bernardo Ant<sup>o</sup>”, “Bernardo”, baina hauen letrak ez du testukoaren antzik. Gehiago dirudi izenaren idazkerarekin praktikatzen ari dela. Gainera, azalak geroagokoak dirudite; beste paper mota bat da, garbiagoa.

*Fr. Jose Antonio de Ibarrola, siglo XVIII.* Hogeita bosgarrena. Bi testu gai beraz, bata sei orrialdetan, eta bestea zazpigarren orrialdean, eta honetan dio: “Doctrina sobre el 4<sup>o</sup> mandamiento de la Ley de Dios y sermon para tercera Dominica de Quaresma sobre el callar pecados en la Confesion”. Orrialdeen behean zenbakia jartzen du orrialdeko lerroen kopurua seinalatuz. Sermoiaren amaieran “O.S.C.S.R.E. Fr. Jose Ant<sup>o</sup> de Ybarrola” errubrikaz. Ez du datarik. Letra oso txikia eta itxia du, irakurtzeko zaila. Aipatutako Katalogoan ez da ageri.

*Egaña, siglo XIX.* Hogeita seigarrena. Hasieran dio: “Contio de SSm<sup>o</sup> Sacramento an... D. Frnc<sup>o</sup> Emanuel de Egaña, die 16 decembris anni 1808”. Amaieran “Omnia OSCSRE” “Egaña me fecit”. Katalogoan ez da ageri.

*Fr. Rafael de Aranguren, siglo XIX.* Hogeita zazpigarrena. Zaila irakurtzeko eta ez ongi kontserbatua, beheko ertzak aski galduak. Amaieran: “Descendi-

---

31. Op. cit., 72. or.

miento. Año de 1810. Fr. Rafael de Aranguren” eta errubrika. Katalogoan, Solagurenek aipatzen du<sup>32</sup>.

*Lorenzo Goicoa, siglo XIX*. Hogeitazortzigarrena. “De D. Lorenzo Goicoa” eta errubrika. Katalogoan ez da ageri.

*Siglo XIX*<sup>33</sup>. Sei eskuizkribu hartzen ditu, hogeita hamalagarrenera arte. Egile bera dirudi seiena, baina urte askotxo doaz lehen datatik –1816– azkenengora –1877–. Azken data hau hogeita hamahirugarren eskuizkribuan ageri da. Beste norbaitek ezarria izan daiteke, edo sermoia bera beste norbaitena. Deigarria da data horrez gain beste bost ematen dituela dokumentu berean, denak hogeita hamarrekoak: “Aizarna 30”, “Castora 30”, “Zumaia 30”, “Motrico 31” eta “Conv. de Elgoibar 34”. Eta bat datoz gainera beste bost dokumentuetan dauden hogeita hamasei datekin, bat berak ere ez duelarik hirugarren hamarkada gainditzen, azkena 1836 baita.

Ez du bere izena ematen, baina 29.n eskuizkribuan birritan esaten du: “Predicado en este Conv<sup>o</sup> de Elgr. El año 25”; “En este convento de Elgoibar año 27”. Maizenik darabilen toki izena Elgoibar da, eta hemen parrokia eta komentua. Gero, Mondragoe, eta hemen ere komentua eta parrokia. Frantziskotarra izango zen, noski. Eta Elgoibarko komentuan bizi zena, edo, behar bada, baita Mondragoekoan ere. Eta inguruetako herri askotan ibili zen, batzuk auzoak: Plazentzia, Markina, Zumaia, Ermua, Motriku, Aizarna, Bidania, Placencia, Marquina-Etxebarri, Motriku, “Garagarza de Mendaro”, Garin, Picoil, Astigarreta, Kastora.

Hogeita hamahirugarrenak misioetako sermoia dirudi: “Vespertino sobre la misericordia de Dios con los pecadores, y la ingratitud de estos respeto (sic) a Dios”. Amaieran: “Conclusion con el Cristo”, eta jarraian, “Predicado por Vespertino 2<sup>o</sup> en este Convento de Elgoibar el año 1877”.

### 3.2.1.6. *Seigarren fitxeroa: ¿Tolosa?*

Bi sail ditu. Lehenengoak 46 eskuizkribu ditu, eta eskuizkribu gehienak egile berarenak dirudite. Letra etzana du eta ez erraza irakurtzeko. Oro har, sermoiak ala sermoi zatiak dira, dotrinako azalpenak, zati solteak eta abar. Laburrak, bi kuartilakoak gehienbat. Egoeraz, denetarik dago, baina badira oso kaltetuak. Izen hori, Tolosa, zenbait dokumentuko paperetan ageri den ur marka da.

Bigarrenak bere izenburua du: *Ramon de Aizpuru, Siglos XIX y XX*. 32 eskuizkribu dira denera. Hauek ere testu laburrak dira, gehienak bi kuartila-

---

32. Op. cit., 69. or.

33. Aurrean galdera markak idatziak, anonimotasuna adieraziz, alegia.

koak. Badira zenbait ez ongi kontserbatuak: ertz zimurtuak, mantxak, denetarik, eta aski zailak irakurtzeko ere bai, batez ere letragatik. Izen hori hogeita bosgarren dokumentua den orri zatixka baten ageri da, hutsune batean, zeharka idatzia. Baina izenaren letra-motak ez du zerikusirik ez papereko testuarenaz ez beste dokumentuenaz. Testuek bi egilerenak dirudite: 1-4, 15-18 eta beste batzuek sakabanatuak, batenak; 5-14, 19-20 eta beste batzuek, bestearenak. 6.ak hirugarren batena dirudi.

8. dokumentua oso luzea da. 10 orri tolestuak eta kuartila solte bat. Orri tolestu bakoitza idatzia dago lau orrialdeetan; eta hurrengo orrietan gauza bera, testuak orritik orrira jarraitzen du, denak koaderno bakarra egingo balute bezala egon arren. 21 orrialde eta heren bat idatziak. Tinta ahulez idatzia dago, zuzenketa ugarirekin eta zaila da irakurtzeko.

### 3.2.1.7. Zazpigarren fitxeroa: Anónimos Siglo XVIII. 1774 - 1779

Bederatzi eskuizkribu dira. Ongi kontserbatuak daude; laugarrenak mantxa askotxo ditu eta azken orria urratua, baina ez da testurik galtzen. Sermoiak dira eta denak datatuak daude, baina fitxeroaren izenburuko datekin ez datoz bat, gehienak geroagokoak baitira, azkena 1811koa, 1803an eginiko batean agertzen dena (bederatzigarren dokumentua). Ez dute egile izenik.

Lehenengoa 27 orriko koadernotxo bat da hiru txikiagoekin osatua. Orrialdeak zenbatuak daude 1etik 35era. Ondoren beste 7 orrialde zenbakirik gabe, sermoi batekin, baina honen testua amaitu gabe ageri da. Hain arretatsu ibili denak ez zuen hori horrela utziko, baina koadernoan ez da ezer falta denik nabari. Agian beste koadernoren batean edo orriren batzuetan izango zuen jarraipena. Hasi, sermoi batekin hasten da, 1774an: “Doctrina Christianaren explicacioa, eta Sermoya Abenduaren lehenengo Iganderaco” (2. irudia). Jarraian, “Resignacioaren, eta pacienciaren gañean Dotrina, eta Sermoya Avenduaren bigarren iganderaco”. Ondoren Ama Birjina Sortzez Garbia egunerako sermoia dator, datarik gabe, baina jai hau aurreko sermoi bien urteko garai berdinekoa izanik, agian urtea ere bera izan daiteke. Dena oso ongi prestatua eta idatzia dago. Testu denak lau alboetatik marra bikoitzez inguratuak, eta lehenengo sermoikoak bi marken arteko hutsunea tinta horiz koloretua. Letra oso garbia du. Erditik aurrerako orriek hezetasun mantxa handixkoa dute, baina irakurketa ez da inon galtzen. Ez du egilearen izenik, baina *Laus Deo* deitu dugunarena dela ziurta daiteke.

Bigarrena *Laus Deo*-rekin amaitzen dena, eta berdin bosgarrena. Eta, zalantzaz bada ere, zazpigarrena, zortzigarrena eta bederatzigarrena ere egile berarenak, *Laus Deo*-renak, alegia, izan daitezke. Zortzigarrena Arano eta Ezkurrako herrietan eman zen: “Platica predicada en Arano en el Domingo 3º de Adv.to 87”, “Ezcurra año 1798”; eta bederatzigarrena Ezkurren 1799an, data honen azpian “1803” eta “Año 1811” ere ageri direlarik.

Anno. = Pro Domica 1<sup>a</sup> Adventus. = 1774.  
Doctrina Christianaren explicacio, eta  
Sermoya Abenduaren lehenengo Igan deraco. =  
Inde venturus est iudicare vivos, et mortuos. =  
Eruunt signa in Sole et Luna, et stellis. Luc. 21.  
3. Jesu-Christo, gure Erredemptorea, etoxi izanduan  
Mundua bere Encarnacione egunean: igo zan Cexua  
bere Ascensionen egunean: eta bihurtu da, edo etoxi da  
da bereiz Mundu onetara, dagoan, leuitio, aunda bere Aita  
eternaren alde escurtic, Juicio egunean. Juicio da, Jaun-  
goriac artico, duan, quizonen, eta emacumeen obra on,  
ta gaita, gurtien contua. Juicioac, edo, Jaungoicac ar-  
tu beax dirigun, contua, dixade bi: bata particularra,  
eta bera universal. Juicio particularra equiten da,  
quizon, edo emacume bacoitza illeen, dan, instante berean;  
universal bereiz egungo da Munduaren airguenewegu-  
nean. Juicio particularra equiten danean, computatic alde-  
quin bein sarri, icuriazitcan dioica Jaungoicac etimari  
bere obra gurtiac, eta, aegatic merari duan, promisa, edo  
castiga, alchaticaz artaraco Anima beraren entendimientua;  
eta

2. irudia. Ustez Laus Deo izena eman diogunarena (7. fitxeroa, lehenengo eskuizkribua)



### 3.2.1.8. Zortzigarren fitxeroa: Anónimos Siglo XIX. 1802-1851

20 eskuizkribu ditu. Badira batzuk gaizki kontserbatuak, hala nola seigarrena, hamaikagarrena, hamabosgarrena, hamaseigarrena eta hamazortzigarrena uger, zimurrez eta mantxez, eta batzuk letra oso zailez irakurtzeko. Azkena ere zuzenketez eta tatxatuez betea dago. Datei dagokienez, denak datatuak daude, baina azkenak honako hau dio azkenengo orrialdean: “Sermon de Mandato predicado el año 1851”, eta jarraian, beste esku batek arkatzez idatzia “y 1880 y 1884”.

Egile ezezagunak. *Laus Deo*-renak banaka batzuk, baina ezaugarri horrekin 2.a baizik ez da ageri. Hamargarrenean bi testu daude, bata sermoia eta bestea, doktrinaren azalpena. Hamaseigarrenean ageri da izen bat, baina ez dago jakiterik egilearekin zerikusirik duen: “En la Villa de Huarte Araquil á veinte y dos de Febrero de mil ocho cientos cuarenta y ocho hallandonos reunidos los S. D. Pedro”. 17.a gazteleraz dago: “Discurso para el dia de S. Juan Bautista”.

### 3.2.1.9. Bederatzigarren fitxeroa: Autores anónimos Siglos XVIII – XIX

Denera 24 dokumentu dira. Ongi kontserbatuak daude, zenbait aski uger-tuak dauden arren, baina denak irakurteraz. Dataren bat ageri da. Eta erdi zirriborroan zenbait izen ere bai, baina ez dirudi esanguratsuak direnik, D. Martin batena izan ezik: “Y el ofrecim.to del Sto. Rosario ami modo Dn. Martin”.

Hirugarrena aski luzea da: 24 orri zenbakiak ezarriak, eta beste batzuk zenbakitu gabeak. Testuak: “Eguneroko lembizico otoitza”, eta gero egunean egunean bigarren otoitza. Baita San Joseren gozoak ere bertsoan:

*Arzaiac animaturic*  
*Laster doaci Portalera*  
*Aurraren visitacera*  
*Cerutic avisaturic*  
*Icuzute choil vozturic*  
*Zure vihozc gucia*

Bederatzigarrenetik hamazazpigarrenera datozen eskuizkribuak sermoiak direla esan daiteke, baina denak “Leccion” hitzarekin hasten dira eta zenbakia daramate: “Leccion 15, 47, 18, 20 (hau birritan kopiatua, eta bi dokumentu dira), 23, 29, 30, 43”. Ez dute egilearen izenik, baina egile bat eta berarenak dira. Eta hortik aurrerakoak ere egile bakar batenak dirudite.

### 3.2.1.10. Hamargarren fitxeroa: Anónimos Siglo XVIII – XIX

50 eskuizkribu ditu. Egoeraz, denetik dago: hautsiak asko, orri solteak ere bai, zailak irakurtzeko eta abar. Ez da egile izenik ageri, baina badira hantemen egile batenak ala bestearrenak bi eta hiru sermoi, eta agian aurretik

agertu direnen orri solteak ere. Esaterako, lehenengo seiak agian egile berarenak dira, *Laus Deo*-renak ez badira. Bederatzigarrenak eta hamargarrenak ere esku batenak dirudite. Zortzigarrenak bi testu ditu, egile berarenak. Hona ataltxo bat:

Nic dacazquidan pensamentuac dira baqueazcoac, eta ez iñor penatzeoac, ez gogortasunarenac ezpada mantzotasunarenak, ez castiguarenac ezpada misericordiarenac: Da bada gure Jang<sup>a</sup> ain viotz bera vigun errukitsuaren Javea<sup>34</sup>.

### **3.2.1.11. Hamaikagarren fitxeroa: Anónimos Siglos XVIII – XIX**

48 eskuizkribu ditu. Badira ongi kontserbatuak, baina asko daude hautsiekin, uger eta zikin, mantxekin eta irakurtzeko oso zail ere. Sermoi batzuk, erabiliaren erabiliz, ugertuak eta hondatuak. Hala ere, sermoi osoak dira hobekien daudenak, eta orri bakar eta bikoitz solteak oso gaizki gehienbat. Letrak ikusiz, aurreko fitxeroetan agertu diren egile beraienak direla testu hauetarik asko uste izan liteke.

Hamabigarrenak hamazazpi doktrina azalpen ditu 20 orriko koaderno batean. Hasieran, goian, “Doctrinas varias” dio. Hogeita laugarrena orri solte bat da datu hauek ematen dituena: “En el conv<sup>o</sup> en el Sermon de Sn. Luis el año 31. En Alzola el dia de Sn. Juan el año 32. En Sn. Lorenzo de Hermua el año 32. En Garagarza el año 38. En la Comunidad el año 43”<sup>35</sup>.

### **3.2.1.12. Hamabigarren fitxeroa: Anónimos Siglos XVIII – XIX**

49 eskuizkribu. Egoeraz, denetik dago, ongi daudenak eta ez gutxi kalteak eta irakurtzeko eragozpenekin. Ageri diren data guziak hemeretzigarren mendekoak dira, baina hainbeste paper solteren artean XVIII.ekoak ere izango dira.

Egilei dagokienez, lehenengoan izen bat ageri da: “Sermon de la Asumpcion predicado en Aizarna año 1844 p.r Ben<sup>o</sup> Javier Olascoaga”. Ondoren datoen laurak egile batenak direla esan daiteke. Hamargarrenetik hamabosgarrenera eta 45a eta 46a egile berarenak dirudite. Badira beste batzuk aurreko fitxeroko beste testu batzuen egileenak ere. Baita “Doctrinas varias”

---

34. 10. fitxeroko hamaikagarren eskuizkributik.

35. “En la Comunidad”, eta aski maiz ageri da “En el Convento”. Eta Solagurenak ere aipatzen du “komentu-predikari”: “denbora-bitarte horretako urte batzuetan bigarren komentu-predikari gisa ere jardun zuen” (AIZPURUA, Juan José, op. cit., 67. or.). Sorondok ere izan omen zuen kargu hori (97. or.). “En el Convento” diotenean, komentuko elizan esan nahiko dute, eta “En la Comunidad” esaten denean Komunitateari zuzendua izan zela, ziurrenez, baina galdera litzateke ea euskara ere erabiliko ote zuten komentu-barrukoentzat. Behar bada, beste azalpenen bat izan dezake horrek, baina galdera dator, besteak beste, izenburu eta oharretan ere gaztelera delako gailen.

izendaturiko orri solte bat ere hogeitazortzigarrenean beste sermoi batekin, eta hogeita hamaikagarrenak ere bi eskuizkribu ditu. Jarraian, hizkeraren adibidex bat:

cein eztan beste gauzaric, ezpada J.C. bere Elexan ifinirico Sacramentu bat bateatu ezquero eguinico pecatuac parcatuteco, nai diriala mortalac parcatuteco, [...] eta alan batiatu ezquero [...], nai badau parcatu daquijon, confesadu biar dau<sup>36</sup>.

### 3.2.1.13. Hamahirugarren fitxeroa: Anónimos Siglos XVIII – XIX

48 dokumentu dira. Aurreko bietakoei buruz esan direnak ongi datozke, oro har, hauentzat ere. Datatuak bi baino ez daude: hamalauagarrenak, amaieran ezarri du: “año de 1784” eta hogeita hirugarrenak “1818”.

Honetan ere badira esku bera agertzen duten eskuizkribu ezberdinak. Eta *Laus Deo*-renak ere badira zenbait, amaiera horrekin ere, hala nola hamalauagarrena eta 31, 32a eta 38a. Berrogeita seigarrena koaderno ederra da eta ongi dago. Bi platika ditu: “Octava y nona. Platicas de Minerva”. Eta berrogeita zortzigarrena Pasioaren sermoia da. Azken hau letra itxiaz idatzia dago, baina nahikoa garbi irakur daiteke (3. irudia). Beste adibide bat:

Irazartu gaitezcan cristinaubac ños edo ños: Considerau daigun gueure animea salbeteac izan bear dabela gure cer eguinic andiena: onetaraco jaio guinea-la eta au eguinagaz guztia eguinic daucagula<sup>37</sup>.

### 3.2.1.14. Hamalauagarren fitxeroa<sup>38</sup>

47 eskuizkribu. Ez dago ezer aipagarrikerik edo azpimarratzekorik, aurreko bi fitxeroei buruz esanak alferrikerik errepikatu nahi ez badira, behinik behin. 47 dokumentu dira, sermoi, platika eta orri solte ugarirekin. Esku ezagunak ageri dira, baita orri solteetan ere, beti bezala. Jarraian hizkeraren adibide bat:

nere semeac cenegatic nagoan eranci eta gurutzean josiric? nere semeac cenegatic ainbezte eraman biar izan deran? Nere semeac ceñegatic eraman nuquian gueiago biar balic ere eta emango nuquian nere vicitza? Ezan zadazute batere lozaric gabe certa ofenditu zaituztet?<sup>39</sup>.

---

36. 12. fitxeroko hogeita seigarren eskuizkributik.

37. 13. fitxeroko hamahirugarren eskuizkributik.

38. Izenik gabe.

39. 14. fitxeroko berrogeita zortzigarren eskuizkributik hartua.



Desolatione desolata est... quia nullus est qui accipiat eorunde. Jeremie. 12.

Euaq. In omni sermone in omni parte... baya bier bitastean... beste gogomate... dicitur... quia nullus est qui accipiat eorunde... desolatione desolata est... quia nullus est qui accipiat eorunde... desolatione desolata est... quia nullus est qui accipiat eorunde...

Eta asac... baya bier bitastean...

3. irudia. Bizkaieraz idatzitako lagintxo bat (13. fitxeroa, hamahirugarren eskuizkribua)

### 3.2.1.15. Hamabosgarren eta hamaseigarren fitxeroak<sup>40</sup>

Hamabosgarren fitxeroa. 15 eskuizkribu ditu. Eskuizkribuen egoera ez da txarra, denak irakurtzeko bezala baitaude. Sermoiak fitxeroetakoak baino laburxeagoak dira oro har, baina lehenengo laurak luzera arruntekoak dira. Lehenengo hiru testuak hogeitazko eskuizkribu batean daude, eta hiru sinadura zenbaki ezarri zaizkie, hiru sermoi direlako, noski. Ez dute ez datarik, ez egilearen izenik, baina egile berarenak dirudite. Hurrengo hamarrak testu laburrak dira, eta letragatik denak esku batek eginak direla esan daiteke. Azkenengoak bi testu ditu, eta bi zenbaki eman zaizkie. Hauek biak Kredoaz dira eta egile berarenak, zalantzarik gabe.

Fitxero honetan datarik ageri ez den arren, testuak XVIII.-XIX. mendeetakoak izango dira. Ageri den erreferentzia bakarra, hamaikagarren testuko sermoian eta hamalauugarreneko Kredoaren azalpenean, "Eguileta" da. Honek lagun diezaguke datara hurbiltzen, horren lana XVIII.aren amaieran argitaratu baitzen<sup>41</sup>.

Hamaseigarren fitxeroa. Hiru dokumentu labur dira. Hirugarrena, behar bada, hamabosgarreneko fitxeroko testu gehienegile berarena da. Hemen ere hirugarren eskuizkribuak "Eguileta" jartzen du hasieran.

### 3.2.2. Jesuitas

Gorago esan bezala, Ondarearen sinadura "Jesuitas 0003/005" da. Hiru koadernoak neurri berekoak dira, orrilaudentan baitaude idatziak. Lehenengo biak josiak daude, eta hirugarrenak joskera galdua du eta orriak askatuak ageri dira. Baina egokiago litzateke esatea bi koaderno baizik ez zirela hasiera batean, eta gero erabileraz askatu egin zela orain hirugarrentzat hartua izan dena, honen kokapena orain bigarrena denaren barnean baitzen. Hiruen artean 59 orri dira, denak arkatzez<sup>42</sup> zenbakiak: lehenengoan, 1etik 44ra; bigarrenean, 45etik 54ra; hirugarrenean,

---

40. Izenik eta datarik gabe. Dena den, 15. fitxeroan, barruko lehen eskuizkribuaren gainean bolalumaz erantsitako oharrean hau dio: "R. E. - 13/91 Euskera 1 - 20 (los nºs 16 - 17 - 18 pasan a Jesuitas)". Zenbaki horien arabera hasieran zenbatzen zen eskuizkribu kopurua 20koa zela dirudi, eta, gero, horietarik hiru "Jesuitas" Ondarera pasatu zirela. 16.ean honela dio barruko azalean arkatzez: "EUSKERA (azpim.) R. E. 13/91 (nºs 15 a 21)"; eta lehenengo eskuizkribuan: "El q. estaba con el nº 15 es nº 21 del invent."; eta hurrengo eskuizkribuan, arkatzez: "Nota: el nº 16 - 17 - 18 pasa a Jesuitas II nº 3 q. completan el libro". 15.ak zenbakia ezabatua du eta, horren ordean, 21 ezarri zaio. Nondik atera da bat gehiago? Ziurrenez, 14.a bitan banandu zen, bi testu baitziren, eta, horrela, 15 zenbakia zuenari 21a eman zitzaion. Gero, hiru hurrengoak tokiz aldatu ziren eta "Euskera"n 18 gelditu ziren, 1etik 15era zenbakituak eta 19tik 21era.

41. EGUILETA, Joaquín Antonio. *Pláticas doctrinales ó Explicación de toda la Doctrina cristiana, dispuesta y ordenada en forma de pláticas, con la mayor claridad para instrucción de los fieles, y comodidad de los párrocos*, 3 ale, Madrid, 1797.

42. Baditu hainbat datu arkatzez idatziak, eta denek berriki jarriak direla ageri dute.



+

resuscitatus in tertia die  
et tertia die

Credoan dingoquit jasien <sup>resuscitatus in tertia die</sup> Infernütara eta da Credo  
 co bost conuen articulu, edo miterioa =

Sinistunten dogu articulu onetan Jasienela Christo en ari meca  
 Infernütara, aude luxren aspico decuitara, an visü ticea  
 nac Visitetan, eta gorpuse guesatu basan Sepulturan bere, epa-  
 ten dogu Jasienela Christo Infernütara, Sepaitic acciñseac  
 edo obrac atribuyetan Lacas personacari, eta Christo en ari-  
 meca Apartatu arien gorpuse erean, ibenean, baze esan inñor  
 apartadu personacian, Egon san uniuic vere ari meca vere per-  
 sonacari; onrepartic esaten, Jasienela Christo Infernütara  
 Visitadu ebesea bereac, eta emon eusea Consuetud Santuari  
 A uniuicau conseruadu eudena ari meca, eta gorpuse Chris-  
 to enac Dibinid eppas, emaiten da entenditan, Simil onepas  
 dauco Caballero batec Espateca escuin, atxetan, espateca bainerean,  
 an, ~~et~~ <sup>dan</sup> aguiñid espateca apartatuac bainerean, eta atxan  
~~et~~ espateca, sein baineca guesatuden dire Caballero en escuin  
 aude succedidu lana Christo en Epioran, apartadusen puenne  
 redemptoren ari meca, sein comparetan dan Espateca apudopas  
 dalaco Espiritu purue, eta guesatuden apartaduse bainerean  
 edo bere estalguirean, sein en gorpuse, eta alan bere ari meca  
 eta gorpuse guesatu itican Dibinid en escuitan. Verbum Dibinum  
 quod semel assumpsit nunquam dimisit. Dingoquit Credoan Jasie-  
 la Christo infernütara, Infernuer usenean exten dudu beaz di-  
 xe lau lecu luxren aspico, loterranün daporanac, sein uer  
 que yeten <sup>late</sup> Infernue: bata da berengo daporana Condenadue  
 na, noxa doxan pecatu mortalean ileiten direanac, aube  
 no doxan Purgatorioa, noxa doxan ari meca danguenac em  
 itico Jandico en <sup>Justiciari</sup> euzen pecatu en satisficiñse aroa pena

14

4. irudia. "Jesuitas" eskuizkribukoa.

55etik 59ra<sup>43</sup>. Hiruen artean Kredoaren azalpen osoa ematen da artikuluz artikuluz (4. irudia). Aurreneko koadernoan lehenengo bederatzi artikulua; bigarrenean, 10.a eta 12.a<sup>44</sup>, eta hirugarrenean, 11.a. Aski ongi konterbatuak daude eta erraz irakurtzeko letrarekin idatziak. Ez da egile-izenik ez datarik ageri. Baina, letra-motagatik eta testu osoaren itxuragatik egile bakarrarena dela ziurtasunez esan daiteke. Ez da egilearen aztarnarik ageri. Kredoaren artikuluen azalpenaz gain, lehenengo koadernoan, 32.-35 orrietan, “Platica p<sup>a</sup> la Pasqua de Pentecostes en bascuence” dator. Gainerako testuaren egile berarena hau ere<sup>45</sup>. Jarraian ‘Credo’tik jasotako adibide pare bat:

Jesusen usen dulcea da Christoren usen propiyoa, esaguredau Salvadorea, eta setaric salvadu guendusen? Gueure pecatuereanic, Demonioñoen cautiveriyo-reanic.

Iturri beteric urteiten badau erreca batec, eta erreca onetaric, eta Iturric for-metan bada poso bat esango deuste posoco ure datorrela Iturrirean eta erreca-rean, eta alanbere gusti dala urbet? Bada alan, Aiteaganic seinden poderiyoen Iturriye, eta Semeaganic sein den [...]<sup>46</sup>.

### 3.3. Eskuizkribuen edukiak

Gaiei buruz, eskuizkribuetan ageri diren sermoinenek ez dute komentario handiren beharrik, ohikoak baitira. Ez testu osoetakoak bakarrik, orri solte eta askatuetoak ere berdin. Garizuma eta Abendukoak dira asko, horiek baitira denbora nagusiak Elizaren liturgian, eta Aste Santukoak, hemen sartzen delarik Ostegun Santuko “Sermón del Mandato” ospe handikoa ere. Elizaren jai bereziak: Jesusen jaiotza, Errege-eguna, Pazko-eguna, Mendekoste, Trinitate eguna, Gorpuzti, Ama Birjinaren jaiegunak, Santu Guzien egunekoa eta arimen aldekoa eta abar. Horiez gain, urtean zeharreko igandetakoak ere ageri dira, baina horietan gaiak irekiagoak dira: eguneko ebanjelioa, baina baita doktrinako edozein gai, Jainkoaren edo Elizaren mandamentuak, horie-

---

43. Bigarren koadernoaren azalean, arkatzez, “signatura antigua” ipintzen du, eta honen azpian, “32 (16)” eta “32 (17)” eta Kredoaren 10. artikulua jarraitzen du 45.-48. orrietan. Lehenengo orriaren goian, “32 (17)” du ezarria, eta esan daiteke ez dagokiola orrialdeen zenbakiei eta artikuluen jarraiarri, eta gero, 49ak, “Amavigarren Articulue, Seculeco Visisea”, goian, arkatzez, “32 (16)” ezarria baitu. Gutxienez alderantziz beharko lukete baina koaderno begiztata ohar daiteke horrela tolestua agertu zela eskuizkribua eta horren ondoriozkoak direla nola sinadura zaharrak nola berriak. Eta hirugarren koadernoaren gainekoan –55. or.– arkatzez: “(Signatura antigua)”, eta “n<sup>o</sup> 32 (18)”, eta “Credoan amacagarren Articulue; Araguuiyen Erresurreccióna”.

44. Hemendik askatua dago 11. artikulua, gero hirugarren koadernoan ageri dena, eta, beraz, orrien zenbakiketak ere ez dio erantzuten artikuluen jarraiarri.

45. Sei orrialde gazteleraz idatziak daude 25. orriaren atzeko aldetik 28. aurreko orrialdera arte. Gaztelerazko testu honek ez du euskarazkoa interferitzen, baina, izan, Kredoaren azalpena da hau ere. Letra-motak beste esku batena dirudi. 7. eta 20. orrien atzeko aldeetan ere bada zerbait gazteleraz.

46. *Jesuitas* Ondarekoak.

kin loturiko beste gaiak, hala nola edana, lapurreta, murmurazio eta besterik. Eta garrantzia handiagoarekin, izen berezia ere baitzuen, dantzei buruzkoa, “De choreis”, alegia, eta urtero uda-garaia hasi aurretxean ez ote zen egiten pentsa daiteke, agian arrandikeria apurren batez nabarmenduz gainera (Ikus 4. fitxeroan hamazazpigarrena). “Minerva” deituak ere bazuen garrantzia hilerro egiten omen zen arren Eukaristiari buruz. Eta gero santuen ohorekoak: S. Juan, S. Migel, S. Bartolome, Santa Barbara, S. Millan eta bereziki Frantziskotarrena den S. Luis Frantziako Erregearena. Misiotakoak ere badira bazuk. Bereizgarria da *Jesuitas* ondareko kredoaren azalpen osoa.

Ikusten denez, gaiak ez dute ezer askorik aipagarri, baina badira berezitasunak tratamenduan, batez ere hizkuntzaren aberastasunaren aldetik, eta erretorikako errekurtsioen erabileraren aldetik. Horretaz, testuak eskutan hartuz gero, erraz ohar daiteke maila oso ezberdinak ageri direla hainbeste testutan. Eskuizkribuetan euretan ere ageri dira horrelako komentarioak. Izan ere, testuak pertsona ezberdinak aprobeitza zitzakeen, eta aprobeitxatu ere egiten zituzten datetatik eta beste zehaztasun batzutatik jarrai daitekeenez. Eta inoiz edo behin badira aipamenak ere: “Muy bueno, pero difícil de leer” eta horrelakoak. Dena den, ez da harrizkoa hainbeste eskutatik irtendako emaitzetan, ez baitira berdinak ez egileen gaitasunak, ez entzulegoak, ez okasio eta aukerak. Bada, beraz, zer arakatu hainbeste eskuizkributako biltegi batean.

### 3.4. Tokiak eta hizkerak

Ikusi den bezala, herri izen mordoxka bat ageri da eskuizkribu hauetan. Batez ere Gipuzkoa erdialdetik Bizkaiko mugaldekoko lehenengo herrietaraino. Elgoibar eta Mondragoe ageri dira gehien, normala den bezala, bi herri horietako Frantziskotarren komentutakoak izan zitezkeelako sermolariak eurak. Markina ere maiz ikusten da, eta gero Aizarna, Urnieta, Zestoa, Asteasu... aipatuxeagoak, eta beste zenbait lantzean behinago: Bidania, Ermua, Zumaia, Eibar, Plazentzia, Elorrio, Eskoriatza, Garai, Mutriku, Lekeitio; eta herrietako auzoak ere bai: Garagartza (Mendarokoa), Untzila, Arrate, Garin... Nafarroa aldekoak ez dira asko eta aipatu ere behin edo birritan baino ez: Arano, Ezkurra, Leitza, Uharte Arakil. Esan behar da, izen gehienak egile berarenak diruditen bospasei sermoitan datozela. Eskuizkribu gehienek ez dute esaten non eman ziren. Kasu bakanen batzuetan, sermoiak adiago irakurriz, edo herriren bateko santu zaindariaren panegirikoa izanez gero, antzeman daiteke, agian, non eman zen. Gehienbat, ordea, nonahi erabiltzekoak izango ziren. Gaiak ere ez dute tokien araberrako berrikuntza handirik eskatzen, eta sermolariek ere bazekiten hainbeste tokitan jardun beharko zutelara eta, hori kontutan hartuz, erraz egokitzeko bezala prestatuko zuten mintzaldia.

Dena den, izan, ez dira hain herri gutxi; hala ere, lagin bat baizik ez dira eskuizkribuen pilo handi horretan, lagin esanguratsua izan daitekeen arren. Izen horiek nolabait ere erakusten dute zein giro euskalduneko herrietan aritzen ziren sermolariak. Beraz, sermolari izendatuak beren buruak hornitu

beharrean aurkitzen ziren euskararen aldetik ere. Esanguratsuak dira A. Villasanteren hitzak Zarauzko herri-mixiolarien kolejoaz ari delarik:

Eta, jakina, zeregin hori Euskal Herrian taxuz betetzeko, euskara menderatu beharra zegoen, eta fraide haiek hartara jarri ziren. Horrela euskaltzale, euskal idazle eta gramatikalariei kabi bihurtu zen Zarauzko komentua<sup>47</sup>.

Lehen ere esan da hori beharrezkoa zela eta euskararen mesede handiko egitekoa, gainera, baina beste ikuspegi bat ere badu horrek euskarazko eskuizkribu haiek aztertzen jartzen denean ikerlaria. Ikasketak hizkuntzaren ezagutza normalizatuago bat dakar berekin eta tokian tokiko bereizgarrien ezabatzea edo ahultzea. Beraz, eskuizkribuaren aurrean jartzean ezin da, besterik gabe, euskalki edo aldaki bati esleitzerik hemengo edo hango izena darimalako, ala toki bateko hizkeraren lekukotzat hartzea honako edo harako herritan aurkitu delako. Besterik ezean, edo dokumentu fidagarriagoen urritasunak eraginda, irtenbide horri heldu izan zaio behar baino usuago, baina horretan arreta handiz jokatu behar da, nahasmenak, eta ez txikiak, sor daitezkeelako euskalki eta aldakien ezaugarriak bereizi eta deskribatzean.

Testu hauetan gipuzkera eta bizkaiera nabari daitezke gehienbat, eta badira bietarik ezaugarri aski zehatzekin nahiz fonetikaren, nahiz morfologiaren, nahiz sintaxiaren, nahiz lexikoaren aldetik. Batez ere testu luze eta osoenak ageri dituztela garbienik iduri du, baina orri soltezen artean ere, eta asko dira ondarean, makina bat testu interesgarri aurki ditzake hizkuntza ikerlariak edozein alderditatik aztertu nahi dituela ere, ez soilik dialektologiarenetik.

Aurreneko artxiboetan gipuzkeraz idatziriko testuak dira gehienak, eta erditik aurrerakoetan gehituz doa bizkaierazkoen kopurua nahiz sermoietan nahiz orri solteetan. Azken bi artxiboetakoak ia denak bizkaieraz daude eta *Jesuitas* ondareko hiru koadernoak ere bizkaieraz daude. Baina ohar daiteke, aipatzen diren herri eta auzoetatik bizkaieraren eremu edo barrutikoak direla zenbait. Sermoiak, berriz, gehiago gipuzkerazkoak, eta ez dirudi herri horietarako egokitu egiten zirenik, eta, behar bada, ez bizkaieraz idatzi ere bizkaieraz egiten zen tokietarako prestatu arren. Jokabide honek ere aspalditik ezaguna den hura sendotuko luke: gipuzkeraren hedapen-indarra, alegia, eta, bide batez, Larramendik ere salatu zuen joera, hots, Bizkaiko herrietan sermoiak gipuzkeraz egitekoa<sup>48</sup>. Bigarren fi-

---

47. VILLASANTE, Fr. Luis. Op. cit., 14. or.

48. Edonola ere, aipatzekoak dira Frantziskotarrentzat izan zituen hitz onak ere: "No se puede dudar que, de pocos años a esta parte, se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predicaban absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, ya al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes". Eta jarraitzen du: "Los sermones que llaman panegíricos [...], en cuanto al vascuence, se predicaban mal por lo común, porque los traducen del castellano y no saben las reglas de una buena traducción y, lo que es peor, no saben con inteligencia y ultimadamente el castellano que quieren traducir". *Corografía de Guipúzcoa*; ed., intr. y notas por J. I. Tellechea Idígoras, San Sebastián, 1969, 291. or.



txeroko lehenbiziko eskuizkribuak “Escoriaza” dio eta hirugarreneko hirugarrenak ere Eskoriatza eta Elorrio aipatzen ditu, bi sermoiak Iriondok sinatuak, baina gipuzkeraz idatziak daude. Edo hamaikagarrena, Lekeition eman zena 1805eko San Pedro egunean, gipuzkeraz dago nagusiki, bizkaierazko zirtekin han-hemenka. Deigarriena, 5. fitxeroko 29.etik aurrerako bost dokumentu dira, egile berarenak ziurrenez, denak gipuzkeraz, eta, besteren artean, Markina-Etxebarri, Ermua, Mondragoe eta Elgoibar herrietan emanak dira. Eta, amaitzeko, onartu arren XIX. mendean bizkaierazko literatura indartu zela, ez da hain garbi ikusten bizkaierak bereziki markatu zuenik mendea<sup>49</sup>. Bai ondare honetako, bai Nagore Etxebarriak argitaratu duen katalogoko testugintza ikusiz, zaila litzateke aipatutako nagusitza horri eustea. Zorionez, noski, horrek agertzen baitu lurralde bietan gertatu zela euskara idatziaren loraldia.

Nafarroako euskalkiak ez dira asko ageri. Horrek ez du esan nahi testuren batzuetan atzeman ez daitekeenik zenbait ezaugarri. Badira, dena den, testuren batzuk adierazgarriagoak, esaterako 8. fitxeroko zazpigarren eta zortzigarren eskuizkribuak, biak Amabirjinaren zeruratze egunekoak: “*ezdira ez asco izain*”, “*Ezpaita*”, “*Da Jesu Cristo ilain, da viciain Juez supremua; au da onain, da gaiztuaina: oina castigaceco, eta aina premiaceco*”, “*Esain zuten bada...*”, “*eta beste asco Santuc*”. Baina, bertan, “*errepairatcen dot*” eta “*arrapatu dot*” ere irakur daitezke. Fitxero bereko hamabigarren eskuizkribuan exordio bat dago bi kuartiletan, eta 1825ean eta 1830ean Leitzaan egindako sermoi batena da: “*emattera*”, “*becatu mortalaren azpien*”, “*partcen*”, “*naiz garie dela, eta naiz edocin azinda, eta alaja dela*”, “*soñeraco conueni zaioan arropa*”... Bederatzigarreneko hirugarren eskuizkribuan bada koaderno berezi bat, eta testu luze batzuren ondoren beste testu batzuk ditu, non agertzen diren: “*Borz garren eguneco bigerren otoiiza*”, “*Gure vorondatean ez tadien izan verze gauzaric baizic zure...*” “*Bedarzi garren...*”. Eta, agian, miatzekoak *Laus Deo*-renak.

### 3.5. Laburbilduz

Ondare hauek badute garrantzirik, noski, ez bakarrik euskaraz idatzitako eskuizkribu pila bat osatzen dutelako eta hori beti oso ongi datorrelako euskararen historia hobeki ezagutzeko eta euskaraz idatzitako testu luzeen kopurua ugaritzen duelako, baizik ageri duten aniztasun eta aberastasunagatik ere. Gaiak betikoak direnik ez dago ukatzerik, baina egileen eta okasioen ugaritasunak, testuetan antzeman daitekeen esku ezberdinen partaidetzak, hizkuntzaren grafien bilakabideak, literaturaren aldetik eta beste edozein alderditatik begiratu eta aztertzen direlarik ere aurki daitezkeen ekarriek oso probetxuzko bihurtzen dituzte eskuz idatzitako horrelako dokumentu ondareak.

---

49. “Euskal literatura, bere historian, euskalkien markaz markatua ageri zaigula uka ezina da. Iparraldean XVI. Mendean lapurtarraren tradizioa jartzen da abian, XVII.ean ziberera, XVIII.ean gipuzkera eta XIX.ean bizkaiera”. VILLASANTE, Fr. Luis, 1987, op. cit., 17. or.

Agian, behar dute katalogazio finkatuagoa, eskuizkribu bakoitzari bere signatura ezarriz eta deskribapen zehatzago bat emanaz. Lan honetan bi ondare horien berri eman nahi izan da eta ikuspegi orokor bat eskaini ere bai, beti ere lagungarri gerta daitekeen ustetan. Eta, azkenik, edizio egoki baten bitartez argitaratuko balira, ikertzaile, irakurle eta euskaldun ororen eskueran jarriko litzateke altxor eder hau.